

1994ko otsailak 11

223. zenb.

PRESS



ARRASATE



Erreportaia
Uharkapeko
hitzarmena

Haratuzteak

HIRREI

SUKALDE OSOTUAK

Otalora Lizentziatua
20.500 ARRASATE
Tfnoa. 943 77 02 82



SUKALDE ET A
BAINUGELA,
HORNIDURA

NEURRIAN
EZARRITAKO
ARMAIRUAK

ETXEBIZITZA-
ERABERRITZEAK

LAN-
ZUZENDARITZA

DEKORAZIOA

eta

INPOR TATUTAKO
ALTZARI
ERRUSTIKOAK
EGONGELA ET A
JANGELARAKO

OSOTUAK



ARRASATE

!

Egi ofizialaren arriskuak

Azkenaldi honetan ikusten ari gara zenbait prentsari egiten zaion zokoraketa, ematen duen informazioa eta iritziak gogokoak ez direlako eta alderdikoztat jotzen dituztelako.

Historian zehar askotan gertatu dira bazterketak. Adibidez, Galileok Inkisizioaren aurrean ukatu egin behar izan zuen bere azterketen bidez ikusi zuena, haren tesia egia ofizialarekin bat ez zetorrelako.

Ordura arte orokorrean uste zen Lurra finko zegoela eta bera zela munduaren erdigunea. Galileok, berak egindako teleskopioz ikusi zuen zuzena zela Kopernikok esana, alegia Eguzkia zela erdigunea eta haren biran zebilela Lurra, beste planeta askoren gisara. Eta gainera lurra bere ardatzaren inguruan biraka zebilela. Iazko urtea arte itxaron behar izan da, 360 urte, Elizak akats hura publikoki zuzentzeko.

Inkisizioa gertutik ezagutua dugu Euskal Herrian ere, zoritxarrez. 1527 aldera Avellaneda Inkisidoreak sorgin talde arrisksuak aurkitu omen zituen Nafarroako Pirineotan, guztira 450 lagun inguru. Caro Barojak gogora arazten digu Nafarroako Erreina Karlos I.aren korroara anexionatzearekin batera gertatu zela. Eta galdetzekoa da zein ote zen arazoa: erlijioa edo politikoki kontrarioak izatea, Nafarroako Erregearen aldekoak, alegia.

Personen arteko harremanetan bekaizkeria eta gorrotoa nagusi zen herrisketan eman zen errepresiorik handiena. Salatzea santutasuneko bidea zenez eta sekretupean salatzen zenez, edozein salatari onartzen zuten Inkisidoreek, sorginak deabruaren sektakoak zirela uste baitzuten. Eta deabruaren langile bihurtzeko tratua egina zutela sinisten zuten.

Hala ere salaketa ez zen nahikoa. Salatuak aitortu egin behar zuen, onez ez bazen txarrez. Gainera Inkisidoreek uste zuten torturak deabruaren menpetik atera egiten zituela sorginak. Eta nork bere burua erruduntzat jotzen bazuen, besteen izenak ere eman behar izaten zituen. Errepresio honen ondorioz, 600etik gora hil omen zituzten Euskal Herrian, hirutatik bi emakumeak, Pierre De Lance-ren aginduz ge-

hienak.

Gauza asko egon dira historio hauen atzean: erlijioaren purutasuna, boterea zentralizatzeo asmoak, ekonomiako arazoak, ideologia ezartzeko borrorak, sexu errepresioa, emakumea giza mailara heltzen ez zen ustea Elizan, inbidia...

Hotzikara ematen du hau dena egiaren izean egin zela jakiteak: salaketan oinarritu, salatzailea eta salatua aurrez-aurre jarri gabe, defendatzaile gabe, (holakoaren defendatzailea ere deabruak kutsatua egon zitekelako), aitortpena egiteko torturatuz, Inkisidorearen irizpideen baitan salatua erruduna zen erabakiz. Onartezina.

Elizako agintari eta Erregetzaren artean eraman zen aurrera euskaldunak hainbeste astindu zituen errepresioa.

Hortara ez iristeko norbere iritziak azaltzeko giro lasaia behar du eta ez da hori "bestea" onartu gabe lortzen, besteen iritzietara itxita ez da aurrera pausorik ematen.

Lotura estua dute prentsak eta politikak, prentsa libreak politikari egiten dion kontrapisuagatik, bere iritzi eta kritikak azalduz. Esan daiteke beste eskubide guztien sorreran dagoela espresio askatasuna eta komunikabidetatik zentsura guztia ezabatzea. Honek suposatzen du informatzeko askatasuna eta baita informatua izateko ere.

Hori ukatzea ez ote da alderdikeria finkatzea?



Zatöz ezagutzero

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du


• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Inaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Teré Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Kooop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da. **Azaleko argazkia:** Joseba Vallés



ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

ARRASATE PRESS HARPIDETZAK



77 08 15

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

Bizilagunei erantzunez

Ez da gure asmoa inor guztiz konbentzitzea, ezta "infernu-zulo" honetan barrena inor jausten laguntzea/ erakartzea ere, baina bai eskatuko genuke argitaratu ahal izatea, behintzat jendea jakinean egon dadin, zenbait egunkaritan agertutako gutun hori, neurritz kanpo dagoela, gure ustez. Bertan datozen zenbait esaldiki zera dirudite: hemen barruan inoiz egon ez den norbaitek idatzi dituela. Ezjakintasun horrek, aspektu negatiboak neurri gabe puzten eta osatzen du, herriari benetazkoa ez den irudi bat emanez.

Horrela pentsatzen dugu Gaztetxean, bai guk, ordutegia betetzeko eginbeharra hartu genuenok, guztiontzat onena izan zedin/dadin, saiatu eta lortzen dugularik inork uste baino gehiago. Baina gauza askok zailtzen (ez guztiz oztopatzen) digute, bai kontzertuek, etabar... eta baita lan talde rotatiboek ere.

Ez dakigu inoiz ulertuko gaituzuen (ez onartuko) baina gazteak gara, eta hortik dator gure gau-txori joera. Hala ere, benetan diotsuegu, gure asmoa ordutegiak betetzea dela, baina egia da, irtenbiderik onena insonorizatzea dela eta honetan ados gaude, eskerrak.

Bukatzeke edo, puntualizazioaren bat: udaletxeak Gaztetearentzat komunak egiteko eta instalakuntza elektrikoa hobetzeko 3 mi-

lio edo emateak, ez du esan nahi, hauek gu ordezkutzen gaituenik, ezta gure dezioren jabe izan daitekeen ere, aspaldiko konpromezu bat zegoen, eurek ez zigutelako "etxe" hau eman. Honekin esan nahi duguna, zera da, kexatarako edo, guregana etortzea, ez gaitetzen betiko moduan besteen aho edo orritik enteratu, gu biktima edo/eta errudunak garen horiek, gainera. Kontutan hartu beharko gaituzuelakoan...

Zu(r)e(n) helburua beste bat badirudi ere (gutunaren tonu, amorru eta gauzak puzteko moduatik), gurea ekintzak egiten gelditu gabe aritzea da, eta bitartean guk gure ingurua errespetatzea, eta honek gu berdin errespetatu gaitzan nahi dugu.

ARRASATEKO GAZTE ALTERNATIBOEN KOFRADIA ORGANIZATUA (AGAKO)

Torturaren aurkako eguna

1981eko otsailaren 13an, orain dela 13 urte, Madrilen, Joseba Arregi torturapean erahil zuten. Joan zen urtean berriz, 1993an, Juan Calvo, Gurutze Iantzi eta Xabier Kalparsoreoren gorpuak komisaldegietatik hilik "jaso" genituen, eta ahaztu gabe Esteban Muruetagoiena, Mikel Arrastia eta Mikel Zabalza. Urte hauetan torturak eta tratatu txarrak eguneroko ogia izan dira komisaldegi desberdinetan.

Urtero izaten diren tor-

tura salaketak ere egunerokoak dira, eta zigortuak ez ditugu sekula ikusten, hildakoen kasuak ere, batere ez dago argitua. Amnistia Internazionalak ere sarritan salatu du Estatu Espainola torturatzailer bezala.

Torturak duen inpunitatea edo zigorgabetasuna legeen barruan daude, komisaldegia inkontrolatuz besteak daude, Paktoko alderdiak lege hauekin bat datoz, eta lege hauek aldatzen ez diren bitartean egoera honek ez du aldatzerik.

Euskal Herrian nork ez du ezagutzen tortura jasan duen norbait? Kepa Urra arrasatearraren kasua beste asko bezala hemen bertan daukagu. Aski da!! Norbaitzuk ongi gogoratzen dugu iazko abenduaren 27an, Torturaren Aurkako Herri Eki-menak aurkeztutako 3 puntuko mozioa: 1., lege antiterrorista indargabetzea; 2., Espainiako epaitegi nazionala epaitegi berezi bezala desagertzea; 3., Espainiako kode penalean tortura delitua egoki zigortzea. Hiru puntu hauek, HBk ezik gaintzeko alderdi guztiek inongo esplikaziorik gabe atzera bota zituzten.

Argi izan tortura desagertzeko, lehenengo eta lehenbait lehen zigorgabetasunarekin amaitzea dela.

Honexegatik, datorren igandean, otsailak 13, Torturaren Aurkako Egunean, Arrasaten manifestazioa izango da arratsaldeko 7.30etan. Etor zaitezte!

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

Ze mozorro jantziko duzu haratusteetan?



Ainhoa Urrutia
Postaria (22 urte)

Oraindik ez dut pentsatu, beti azkenengo egunean presatzen baitut mozorroa. Baina beti bezela zerbait jantziko dut, giroan gehiago sartzeko.



Xabier Arrese
Errepresentantea (25 urte)

Ni tolosarra naiz, eta noski, mozorrotu egingo naiz. Igandean erromatar eta astelehenean kupido.



José Costana
Langabetua (36 urte)

Urte guztian zehar disfrazatu xamar ibiltzen naizenez, ba, ihauterietan ez dut mozorro berezirik jantziko.



Aitziber Retolaza
Ikaslea (21 urte)

Urtero bezela, uste dut mozorroren bat jantziko dudala. Disfrazatu ezker, lehenago sartzen zara giroan.



Mari Luz Casatorre
Etxekoandrea (27 urte)

Mozorro bat utziko didate eta gustatzen bazait, jantziko dut. Baina haurrak behintzat mozorrotuko ditut.



Juan Cruz Aranburu
Tabernaria (32 urte)

Nik tabernan lan egiten dudanez, derrigorrez mozorroren bat jantzi beharra dut.



Margarita Ojanguren
Etxekoandrea (50 urte)

Ez naiz sekula disfrazatu, beraz, aurten ere ez. Alabei egiten diet mozorroa, baina neuretzat sekula ere ez.



Iñaki Mendizabal
Ikatzeko langilea (32 urte)

Beharbada astearte ganean disfrazen bat jantziko dut. Egia esan mozorrotu ezker, animatuagoa egoten naiz.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

ARTEA

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Cruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguallatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zenitua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltaldeak 79 09 00
 Udaltaldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 11
 Egunez eta gauzez: Camacho. Oxirondo.
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Sta. Marina.

Larunbata 12
 Egunez eta gauzez: Puy. Barrenkale.
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.

Igandea 13
 Egunez eta gauzez: Puy. Barrenkale.
 Egunez 22.00ak arte: Morales. San Andres.

Astelehena 14
 Egunez eta gauzez: Guallar. San Antonio.
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Astearte 15
 Egunez eta gauzez: Estella. Matxiategi.
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz.

Asteazkena 16
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Osteguna 17
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

11 OSTIRALA

ZINEA

"Benny y Joon. El Amor de los Inocentes". 7etan eta 10etan.

ARGAZKI RALLYA

Gaia: Haratuzteak 94. ASA taldeak antolatuta. Arratsaldeko 6etatik 8etara karreteak denda kolaboratzailetan jasoko dira.

12 LARUNBATA

ZINEA

"Todos a la Cárcel". 5etan 7.30etan eta 10etan.

SABADO REGULAR V. PLAY BACK JAIALDIA

Amaia antzokian. Bi ekitaldi: 7etan eta 10.30etan. Sarre-salmenta: Monte, Eresi eta Xaramelan. Ordu bete lehenago takilan. Prezioa 500 PTA. S.U.D.C. batzordeak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntza.

KARNABAL ZAPATUA

Dantzaldia "Ostadar" taldearekin. Gaueko 11etatik goizalderara arte. Arrasateko Herriko Plazan.



BERRIZ ERE IVO POGORELICH

Munduko pianujole onenatariko berriz ere Arrasatera etorriko da, berak halaxe eskatuta. Oraingoan Mussorgskyren "Cuadros de una exposición" obra estreinatuko du. Eduardo Clausenek Arrasate Musikali heziketa mailan eskaintzen dion laguntza desinteresatua eskertu nahi da era berean. Igandean, Amaia antzokian. Sarrerak 2.500 PTA bazkide ez direnentzat. Salgai 11, 12 eta 13an Mendi tabernan eta kontzertua hasi baino ordu bete lehenago, Amaia antzokian

13 IGANDEA

ZINEA

"Todos a al Cárcel". 5etan 7.30etan eta 10etan.

KARNABAL DOMEKA ARETXABALETAN

Goizeko 12etan "Danok Bat" txarangaren etorrera eta jarraian Herriko Kaleetan zehar kalejira. Eguerdiko 12etatik ordu 2etara kuadrilen desfilea. Ordu 1ean "Txino Dantza" Erdiko Kalean. Arratsaldeko 7etan ohiturazko Santa Ageda mutilen aureskua. Ostean mozorro lehiaketaren sari banaketa. Gaueko 10.30etatik 12.30etara txarangarekin kalejira eta dantzaldia.

TORTURAREN AURKAKO EGUNA

Sebero Altube Enparantzan. Arratsaldeko 7.30etan torturaren aurka, eskualdeko manifestazioa.

KONTZERTUA

Ivo Pogorelichen kontzertua. "Cuadros de una Exposición" obra. Arratsaldeko 7etan, Amaia antzokian. Sarrerak 2.500 PTA bazkide ez direnentzat.

DANTZALDIA

"Eguzki" taldearekin. Arratsaldeko 7etatik aurrera, Herriko Plazan.

ZEZEN SUZKOA

Gaueko 8.30etan. Herriko Plazan.

ZINEA

"Todos a la Cárcel". 7etan eta 9.30etan.

SAN VALENTIN EGUNA

ARGAZKI RALLYA ARETXABALETAN

Otsailaren 13an, igandean. Izenematea, igandean, goizeko 11etatik ordu bata bitartean, Murruxiko M.Earen lokalean. Modalitatea, diapositibak. Gaia: igandean gaien berri emango da.

14 ASTELEHENA

"Amodiozko gutunen" sari banaketa. Arratsaldeko 7.30etan. Bergarako Zabalotegi aretoan.

ANTZERKIA

Izenburua: "Maribel y la extraña familia". 5etan, Aita Menni ospitaleko kultura aretoan.

ZINEA

"Todos a la Cárcel". 7etan eta 9.30etan.

KARNABAL MARTITZENA**FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROA**

Autoezagutza eta asertibitate ikastaroa, eguneroko estresa gainditzen ikasteko eta gure nahiak diren bezela azaltzen laguntzeko. Iraupena 14 ordu. Hasiera otsailaren 17an.

Ostegunero 6.30etatik 8.30etara. Matrikula otsailaren 10etik aurrera egin daiteke. Gaur egungo literatura unibertsalari buruzko ikastaroa, idazketa eta testu komentarioa. Iraupena 26 ordu. Hasiera martxoaren 1ean. Astartetan, 6.30etatik 8.30etara. Ahozko eta idatzizko espresio tekniken ikastaroa, ortografia, sintaxia, morfologia, curriculumak nola idatzi... irakatsiko da. Martxoaren 2an hasi eta ekainerarte, astelehen eta asteazkenetan, goizeko 9.30etatik 11.30etara edo arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara. Azken bi ikastaroetarako matrikula, otsailaren 14tik aurrera egin daiteke. Informazio gehiago nahi baduzu, degen 790459 telefonora edo joan Sta. Teresa kaleko 12. znb-ra.

15 ASTEARTEA**DANTZALDIA ETA LUNTXA**

Aita Meni ospitalean, arratsaldeko 4etan aretoan. Sarrera 400 PTA.

PAILAZOAK ETA HANKAPALOAK

Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoen emanaldia, Sebero Altube Plazan. Arratsaldeko 5etan. "Samasiku" fanfarrearen irteera, 5etan. "Auskalo" hankapalo taldearen emanaldia, 6etan. Erraldoi eta Kilikien kalejira, 7etan.

DANTZALDIA ETA FANFARREA

"Anker" taldearekin, gaueko 10etatik goizaldeko ordu 2ak arte, Herriko Plazan. 11etatik goizaldeko ordu bata arte, "Samasiku" fanfarrea herriko kaleetan zehar.

SARDINAREN HILETA

Gaueko 11.30etan. Segizioak erdialdeko kaleak ibili ondoren Herriko Plazan bukatuko da desfilea eta sardina bertan erreko du.

MOZORRO LEHIAKETA

Gaueko 12.30etan, Herriko Plazan, sariak banatuko dira.

HARATUZTEAK ARETXABALETAN

Arratsaldeko 3etan "Incansables" txarangari ongi etorria. 6.30etan buruhandiak. Gaueko 10.30etan txinoaren hileta.

MAHAINGURUA

Gaia: Euskal Y. Abiadura Handiko Trena. Hizlariak: Victor Pachon TGVkoa (Coordina-

MENDI IRTEERA

Besaideak antolatuta. Otsailaren 20rako. Ibilbidea: Azpiroz mendatetik Lizarrusti mendatetara. Irteera goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea, otsailaren 15, 16 eta 17an, 7.30etatik 8.30etara Besaide Egoitzan.

16 ASTEAZKENA


tion Des Associations), Mikel Alvarez A.H. Taren Aurkako Asanbladakoa, Mikel Egibar RENFEko langilea eta Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea. Monteronen, arratsaldeko 7etan. Antolatzailea Udal Liburutegia.

ASAMBLADA

Deba Bailara Bizi Bizirik taldeak antolatuta. IGPei buruz eta ekintzak antolatzeko. Mon-

MANTENIMENDUKO GIMNASIA

Musakolako Polikiroldegian. Goizean, 9etatik 10etara eta 10etatik 11etara. Arratsaldeko 6etatik 7etara. Astero lau egunez. Goizekoak astelehen, astearte, asteazken eta ostira-lean. Arratsaldekoak astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan. Beharrezkoa da AUKEAko bazkide izatea eta hileroko 2.500 PTAko kuota ordaindu behar da. Plaza mugatuak.

HARATUZTE GIROA NONAHI IZANGO DA

terronen arratsaldeko 7etan.

ARTE EDERRETAKO IKASLEEN ERAKUSKETA

Pintura, grabatu, eskultura eta argazkien erakusketa. Otsailaren 4tik 19ra. Harresi Aretoan. Ordutegia: egunero arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, goizez 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

“Iazko azaroaren 26 eta 27an egin ziren Arrasate Komunikabideak-ARKOren eskutik Herri Komunikabideei buruzko 2. Jardunaldiak. Parte hartzaile asko eta hitzaldi benetan interesgarriak bai dagoeneko martxan diren komunikabideentzat, bai sortzeko asmotan daudenentzat ere.

Azpmarratzekoak iruditu zaizkigu kalitate kontrolari buruz, arazo etikoei buruz, diseinuari buruz eta publizitatea saltzeari buruzko hitzaldi eta mintegiak, baina beste hitzaldi on asko ere izan ziren bertan. Esan beharra dago orohar oso kalitate ona izan zutela jardunaldiek eta antolakuntza ere egokia izan zela zeharo.

Bereziki aipatu nahi genuke hemen herri komunikabideen elkartearen sortzeko egin zen proposamena. Gehiago aztertzekotan geratu zen arren, herri komunikabideen arteko koordinazioak eman dezake fruiturik, alajaina!”

93ko abendua

EKBerriak



“Bost urteko tartean hogeita hamabost herri-aldizkari izatera heldu da, hastapen haietako ARRASATE PRESS aitzindariari jarraiki. Horri esker, milioi erdi irakurle omen da maiztasun tinko batez aldizkari horietako informazioa jasotzen duena. Ez da txantxetako marka, ez halajaina, euskarak ez baitu inoiz hain irakurlego zabal eta zintzorik eduki.

Jose Mari Velez de Mendizabalek

JAKIN

“Nahiago dugu Audi edo BMWaren motorearen orroa, 100 Wko kanaleko Hi-Fi katearen potentzia, telebistako lehiaketetako garraxitxo histerikoak, futbol zelaietako jendetzaren burrundarak, makina txanponjaleen metal-soinua ... , hemen dagoeneko ez dago poesiarantz lekurik, maitasunez hil nahi zuten erromantikoen ztat zen hori; gurea, modernoa, zarataz hiltzea da”.

Eukeni Olabarrietak

lanhide

Zeri erantzuteko egin da hiriko errenten lege proiektua?

Lege proiektu berriak Espainiako alokairu sistemak duen egoera bikoitzari amaiera eman nahi dio. Batetik 1964. urtea eta gero egindako kontratuak ditugu. Hauek ez dute kontratuaren amaiera eperik aurreikusten eta jabeak kasu batzuetan bakkari kanpora dezake maizterra. Bestetik, 1985ean indarrean sartu zen “Boyer lege”aren arabera egindako kontratuak. Lege honek epea jarri zien kontratuei eta jabearen alde egiten duela esan daiteke.

Egoera honi erantzuteko lege proiektu berria eratu da eta nagusiaren eta maizterraren gustokoa ez dela esan daiteke. Honen arabera alokairu kontratua gutxienez lau urtekoa izango da. Era berean, maizterrak 210.000 PTA baino gehiago irabazten duen kasuetan, eguneratu egingo dira errenta zaharrak. Besteie ordea, IPCaren arabera igoko zaie. Gainera, hori hamar urteren buruan eman behar da, baina zer gertatuko da adibidez bigarren urtean 210.000 PTA baino gutxiago irabazten badu? Legeak ez du hori zehazten, horregatik jabeek ez zaie hori gustatzen. Maizterren gustokoa ere ez da, lege horrek 64koak baino eskubide gutxiago aurrirakusten dituelako.

Era berean, guzti honekin alokairu sistema bultzatu nahi dela esaten da. Baina Arrasaten, adibidez, hori lortzea zaila izango da. Udalak ikerketa bat egin zuen eta hutsik zeuden etxeak asko zi-rela ikusi zuten. Hemen ez dago etxeak alokatzeko ohiturarik, jendeak esperientzia txarrak izan ditu eta horregatik ez dira ausartzen.



Lia Altuna

Gipuzkoako Jabetza
Hiritarrako Ganbarako
aholkulari Juridikoa

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

EsLu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

comercial
san juan

hikein

MARKO-JARTZEAK

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Parrokiaren konponketako dirua

Setienek berri emandako beste puntua San Juan elizaren konponketari buruzkoa zen. Horretan ere eztabaida egon zen, baina ez aurkezpen publikoan, udal plenoan baizik. Lanei 28 milioi PTArekin laguntzea erabaki zuen Korporazioak, HBren aurkako botoarekin. HBren ustez, 105 milioi proiektu horretan Udalak hainbeste diru jartzea ez da bidezkoa, eta Jaurilaritza eta Diputazioa gehiago inplikatu behar direla adierazi zuten. Beste herri batzuetako adibideak aipatu zituen HBk: Hernanin, esaterako, elizaren konponketa 200 milioikoa da; Jaurilaritzak eta Diputazioak 102 jartzen dituzte, eta Udalak 14.

“Lan berdina, soldata berdina”

Gelma enpresaren aurrean kontzentrazio bat egin zuen ostiralean CCO-Oko sindikalista talde batek. Lantegi honetan aplikatzen hasi diren aprendizaje edo ikasketa kontratuak izan ziren protestaren arrazoia. Lan kontratu berri honekin 16 gazte hasi dira lanean



Setien eta Uribarriko bizilagunak

Jose Maria Setien Arrasaten izan zen joan den ostiralean San Juan elizaren berrikuntza lanen eta San Andresko parrokia berriaren proiektuez hitz egiteko. Baina aurkezpena Uribarriko bizilagunen protestarekin nahastu zen, eta azkenean polemika bizitu egin zen hizlari eta bizilagunen artean. Gozaiaren eta Jose Mari Astigarraga parrokoaren jarrera kritikatu dute Uribarrikoek gerora. Eliz-komunitatearen ustez, Uribarriko gaur egungo elizak ez ditu auzoaren premiak betetzen, eta horregatik Uribarrik bat egingo du San Andresekin parrokia berria egiteko. Oraingoz, bilera bat egitekotan geratu dira elizako arduradunak eta Uribarrikoak.

Gelman, CCOOk jakitera eman duenez. “Lan berdina, soldata berdina” eta antzeko esloganak kantatu zituzten, eta pankarta bat utzi zuten lantegiaren aurrean. Ondoren, CCOOk salatu zuenez, Gelmako zuzendaritzak erretiratu egin zuen pankarta hori. Ikasketa kontratua urtarrilaren 27ko grebako

motiboetako bat izan zen.

Armamentismoaren aurka

Tica Font profesore katalanak armen industriari buruzko hitzaldia eman zuen asteartean Arrasaten, Komite Internazionalistek antolatutako jardunaldien

barruan. Armen industriak Euskal Herrian duen presentzia salatu zuen Fontek, Hirugarren Munduko nazioetako indarkeria egoerak mantentzeko balio duela eta.

Autopistaz mahaingurua

Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan mahaingurua antolatu zuen Deba Bailara Bizi-Bizirik taldeak asteartean. Proiektu honen inguruan proposamenak kaleratu izan dituzten hainbat talde izan ziren bertan, baina ez zen autopistaren aldeko inor azaldu, gonbidatuta zeuden arren.

JAIOTZAK

- Kepa Zeziaga. Otsailaren 1ean.
- Mari Azcarraga Hernandez. 3an.
- Ander Urrutia Garcia. 4ean.
- Naiara Oñederra Larrañaga. 4ean.

HILDAKOAK

- Benito Mandiola Urkidi. Otsailaren 2an. 72 urte.
- Maria Orobengoa Ceciaga. 2an. 85 urte.
- Minerva Gomez Martinez. 1ean. 20 urte.
- Juliana Ortubai Urrutia. 3an. 64 urte.
- Julia Barinagarrementeria Lertxundi. 5ean. 69 urte.



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

LARUNBATETAKO INGELESEZKO IKASTARO INTENTSIBOAK HASI BERRI DIRA!!

MAILAK:

- Hasierakoa
- Oinarrizkoa
- Erdi-mailakoa

**Oraindik garaiz zabilta!!
Eman izena lehenbait lehen**

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



JABIER ABALDE GALPARSORO *

Urbina-Maltzaga proiektuaren aurka

Oraindik orain sortutako Deba Bailara Bizi-Bizirik plataforma, martxan jarritako NIPekin erlacionatuta dago. Gune hauen eraketak markatzen du plataformaren hasiera, Urbina-Maltzaga autopistaren aurkako mugimendua duela urte batzuk hasita egon arren.

Gure ustez, Administrazioak, ekimen hau martxan jartzerakoan, Urbina-Maltzaga autopista hipotetiko batekiko herritarren iritziak ez ditu kontutan izan, ezta proiektu horren aurka egon zitezkeen pertsona edota taldeen alde edo kontrako informazioaren kontrastazioa egin, herritar gutxiei zuzentzeko.

Proiektu faraoniko honen aurka gaudenon arrazoiak lau zutabe nagusitan oinarritzen dira:

1. Arrazoi ekonomikoak. Gaur egungo krisialdi egoera batean, soldaten kongelazioaz hitz egiten denean, zerbitzu sozialen murrizketaz, langabezia... Onartezina da premiagabeko autopista berri batean diru-multzo izugarri horiek inbertitzea. Aldiz, diru hori, zerbitzu sozialetarako, edo gizartearen osotasunerako askoz ere premiazko eta errentableago izan daitekeen beste zerbituetarako destinatu beharko litzateke, eta ez betikoen poltsikoez hartzeko.

Harrigarria iruditzen zaigu,

autopistak, Deba Bailarari ekarriko dion etekinarenhotsak entzutea. A-8 autopistak gauza bera ekarri die Kostako herriei edo Eibar eta Elgoibarri? Zalantzarik gabe, ez. Aberastasun hipotetiko hori, kotxeek eramango duten abiadura berberarekin pasatuko da gure aurretik.

2. Deba Garaiak behar du autopista?

Administrazioaren esanetan, Urbina-Maltzaga autopista Europa eta Mesetaren arteko iraganbide izango dela dio batetik eta, gure bailarako komunikazioak hobetzeko balioko duela bestetik.

Meseta, jadanik Europarekin lotuta dago N-1 (hau dohainik) eta Behobia-Bilbo-Gasteiz autopistaren bidez. Ez da hau nahikoa? Bestalde, bailarako komunikazioak hobetuko dituela esatea ez da batere erreala, iraganbide bezala planteatuta baitago.

3. Ingurugiroari begira onartezina.

Autopistaren eraiketa, katastrofe kontsidera daiteke soilik. Azpiegitura obra faraoniko hauen emaitzak, animalia, flora, eta herriak zein hauen herritarrengan duen eragina konponezina da; are gehiago gure bailara estu eta zeharo urbanizatu honean. Obra hau aurrera eramango

balitz, bailarako bizimoduaren aldaketa deskribaezina izango litzateke, zarataren gehikuntza jasanezina, zihurtzat har daitekeen garraio toxiko eta erradiaktibo beldurgarriak.... benetakoko egoera "danteskoa".

4. Goi-mailako azpiegiturak eta garapen-ereduak.

Azpiegitura mota hauek garapen-eredu bat markatzen dute. Bilketa handiei eta Konzentrazio industrial zehatz batzuei lehentasuna ematen dien eredu bat da. Garraio azkarra eta pribatuari lehentasuna ematen dien eredu. Eredu honek trenari eta garraio publikoei eraso egin die. Ez da beste aukerarik geratzen, dauden bideak aprobetxatu beharrenean obra faraoniko hauek bultzatu eta, eskaera, ia derrigorrez, garraio pribatura zuzentzen bada. Eta horrela gertatzen ari da.

Ingurugiroarekiko ikuspegi adeitsu batetik begiraturaz, garraiobideen gaiari aurre egiteko beste premisa batzuk erabili behar ditugu. Lehendabizi, eredu produktibo deszentralizatuagoa eta askoz ere autosufizienteagoa, non garraiobideen sareak, giza-kion zein herrien arteko benetazko komunikaziorako baliogarririk izan daitezkeen, eta ez iraganbide bezala. Eredu honek, kapazitate handiko garraiobide-azpiegituraren eraiketaren beharrak gutxituko lituzke, batez ere, teknologikoki konplexuak diren azpiegiturak, inbertsio ekonomiko izugarriak behar dituztenak eta beren eraiketa kontsumo energetiko izugarria, ingurugiro inpakto aldaezina ekarriko dutenak.

Deba Bailara Bizi-Biziriken ustez, momentu egokia da guztion indarrak bateratu eta, kontzientziario eta presio sozialaren eskutik, gizartearen beharrek zein erakundeek, eta bai, aldiz, interes ekonomiko boteretsu konkretu batzuekin zerikusia duten proiektuak atzera botatzeko.

**DEBA BAILARA BIZI-BIZIRIK
PLATAFORMAKO KIDEA**

USTEAK USTE

KIOSKOA

San Juan Bataiatzailea Parrokiaren zaharberri-tze obrak Herriko Plaza-ko kiosko-txixalekua botatzea ekarri du. Kiosko honen desagertzearekin sortu da komentarioa udalak honen truke zer jarri behar ote duen, plaza hotzegia geratuko ote den susmoa; hainbatek plaza erdian zegoen kiosko borobila berriro jartzea eskatu dezakeelarik, orduko banda kontzertuak edota sokadantza (aureskulari eta atzekulariak barne) berpiztuko direlakoan. Bai, ugariak dira plaza-erdiko kioskoaren inguruan jaia ospatzen zela testimonioa ematen duten argazki zaharrak, badira, ostera, zaharra-goak, 1898koak, plaza erdian kioskorik ez zegoela agertzen dutenak. Azken urteetan herriak jaiak ospatzeko hartu dituen usuarioak, Olentzero, Errementari dantza, dantzaldi, tanborrada, kale antzerki, e.a, kioskoa plaza erdian egonda ezingo lirateke ohitura bilakatu den moduan, behintzat, burutu. Ez ote da hobe behar denean ekintza bakoitzari egokitutako ganorazko eszenatokia kokatzea? Hirigunean bertan espazio zabalen premiarik ez ote da, bada?


JON GARAY

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

BAYAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



lbai-ertzetan eraikitzeko debekuaren aurka alegazioa aurkeztu zuen Mankomunitateak

Deba Garairako garapen neurriak DOT irizpideetan

Eusko Jaurlaritzak onartu egin ditu Deba Garaiko Mankomunitateak Lurralde Antolamendu Zuzenbideei egin dizkion alegazio gehienak. "Zuzenbide" edo irizpide horiek (DOT direlakoak), Euskal Autonomi Elkarrearen garapen urbanistiko eta ekonomikoa zehazteko plan handi bat dira. Alegazioak iazko martxoan aurkeztu zituzten, eta duela bi aste iritsi zen erantzuna.

Jaurlaritzak kontuan hartu dituen alegazioetako batzuk honako hauek dira: batetik, Bailararen unibertsitate mailako ikasketak ekipamendua kontuan har dezala, hiriburuak gehiegi potentziatu gabe. Bestetik, Bergara eta Arrasate eskualdeko bi gune nagusiak kontsideratu beharrean, unitate bakartzat hartzea onartu du Jaurlaritzak. Errepide sareari dagokionez, Maltzaga-Urbina eta Beasain-Durango ardatzen garapena garrantzitsutzat jotzen da.

Azpiegituren alorreko beste puntu garrantzitsu bat Abiadura Handiko Trenari dagokio. Euskal Y delakoa Deba Garaitik

igarotzen da, baina printzipioz geldiunerik gabe. Mankomunitateak geltoki baten aukera ez baztertzeko eskatu zion Jaurlaritzari, eta ideia aintzakotzat hartzen dutela erantzun dute Gasteiztik.

Beste eskaera bat Arrasaten epaitegi-barrutia sortzeko zen, Bergarakoa bitan zatituz. Baina hori bere eskuetan ez dagoela adierazi du Jaurlaritzak. Alegazioetako bat DOT irizpideetan azaltzen zen beste puntu bati buruzkoa zen: ezin dela eraikuntzarik egin ibaietatik 50 metrora edo hurbilago. Bailararen izaera kontuan izanik, arau hori hain zorrotz ez aplikatzeko eskatu zuen Mankomunitateak, eta Jaurlaritzak berrikeri egingo du.

Lurralde Antolamenduaren onarpen prozesua luze joan daiteke oraindik, 85.a arte gutxienez. Hala ere, irizpideak lege bihurtzen ez badira ere, erredaktatutako planek garrantzi handia izango dute Deba Garairen garapen sozio-ekonomikoan, Mankomunitateko arduradunen ustez.

Gutxitu fisikoentzako programa


Gutxitu fisikoei laguntzeko programa berri bat jarri da martxan: kalean ondo moldatzeko laguntza pertsonala. Bizimodu arrunteko irteeretan mugikortasun arazoak dituztenei laguntzeko programa bi aldiz erabili ahal izango dute gutxituek (bost ordu gehienez bakoitzean). Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak antolatzen du zerbitzu hau, eta bertara zuzendu behar dira eskabi-deak. Informazio gehigarriko, Arrasateko gizartezerbitzuen sailera jo.

Kooperatiben V. Kongresua

Kooperatiben taldea V. Kongresu Kooperatiboa prestatzen hasi da. Kongresua uztailan bilduko da, baina dagoeneko bertan eztabaidatuko diren hiru ponentzia nagusien zirriborroak banatu dituzte. Martxoan, hausnarketarako jardunaldi batzuk egingo dira, eta ondoren idatziko dira proiektu definitiboak.

Liburutegi informatizatua

Monterrongo liburutegiko katalogazio sistema informatizatuzko 2,5 milioi PTako inbertituko dituzte. Sistema berriarekin, irakurleek errazago aurkitu ahal izango dute nahi duten gai, liburu edo autorea.



ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Batipat jende nagusia da etxez-etxeko laguntza jasotzen duena.

Etxez-etxeko laguntza zerbitzua araututa geratu da

Gizarte laguntzaileek eskaintzen duten etxez-etxeko laguntza zerbitzua arautu berri du udalak. Iaz, atal honetako udal aurrekontua (45 milioi PTA) urtea amaitu baino lehenago agortu zen, eta horrek agerian jarri zuen zerbitzua arautu beharra. Araudi berria joan den ostiraleko udalbatzan aho batez onartu zuen Korporazioak. Araudiarekin, zehaztu egin dira etxez-etxeko laguntza jasotzeko bete beharrefeko baldintzak: ordukako laguntza puntuala eskaintzea da zerbitzuaren helburua eta, beraz, etengabeko atentzioa behar duten pertsonak beste zerbitzu batzuetara jo beharko dute.

Bestetik, jendearen premia ekonomikoak hobeto zainduko dira (dokumentazio gehiagoko eskatuko da), iruzurrik ez gertatzeko, eta Arrasateko erroldan bi urtez egon beharko da jendea laguntza eskuratu ahal izateko. Edozela ere, 94an iaz baino kasu gehiago atenditzekotan daude udaletxeko gizarte-alarrean (% 10eko hazkunde). Une honetan, 72 lagunek jasotzen du etxez-etxeko atentzio hau. 14-15 laguntzailek dihardute lanean zerbitzua eskaintzen. Laguntza jasotzen dutenek, dituzten diru-sarreraren arabera, zerbitzuaren parte bat ordaindu egiten dute.

Euskara, lan-hizkuntza

Udaletxeko langileen artean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko plan bat jarriko du martxan Euskara batzordeak. Orain arte, langileen hizkuntza-betebeharrak ezaguera mailak (*perfil* ezagun horiek) ziurtatzera mugatzen ziren legez, baina orain, plan honen bitartez, 4. perfila betetzen dutenak udal-prozedurak (txosten, eskutitz eta gainerakoak) euskaraz egitera konprometitu dira.

Gurea zinemaren terrenoak

Gurea zinema zenaren terrenoak birkalifikatzea erabaki du udalak, bertan etxebizitzak eraikitzeko. Gurea zinema zegoen tokian, behin-behineko aparkaleku bat dago gaur egun. Udalak subastara aterako ditu lur-sail honetako 600 metro karratuak, etxeak egiteko baime-na aukera onena eskaintzen duen eraikitzaileari uzteko. Iaz, egon ziren eraikitzaileen eskaintza batzuk, eta guztiek 100 milioi PTatik gora eskaini zioten udalari.



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Inguru honetako berdegunea etxeek ordezkaturiko dute.

Legargainen etxeak eraikitzea onartu du Udalak

Legargainen etxeak egiteko baimena eman zuen udal korporazioak joan den ostiraleko plenoan, ez polemika gutxirekin. Pleno aretoan, Legarre auzoko bizilagun talde batek, etxeak egiteko kentzen dieten berdegunea errebindikatu zuen. Bizilagunek udalaren hirigintza-politika ere kritikatu zuten.

Juan Karlos Garitano zinegotziak (berau ere Legarreko bizilaguna) proiektuarekiko desadostasuna azaldu zuen. Arrasateko biztanlegoa behera doanean etxeak eraikitzea ez dela egokiena eta egitekotan urbanizazioak hobeto planifikatu beharra adierazi zuen, hirigintzako plan berrietara egokitu eta hobeto aztertuta. Bere azalpenetan lau aspektu argudiatzen zituen: gune berde-erai-

kin erlazio pobrea, gune horretan pasoko kaminoa egitearen arriskuak, goiko etxebizitza unifamiliarrentzako kaltea, eta industri-gunea erresidentzial gisa gestionatzeari lehenetsuna ematea. Beste aukera bat herriko etxebizitzaren errehabilitazioa dela gehitu zuen.

Legargaineko etxeetan, beste hainbat tokitan baino etxebizitza dentsitate txikiagoa egongo da: hektareako 50 etxebizitza baino gutxiago eta horko etxe gehienak hiru solairukoak izango dira. Bestetik, Arrasate husten bada, inguruan etxe merkeagoak dardelako izango dela aipatu zuen beste zinegotzi batek, eta hori konpontzeko bideetako bat etxe gehiago eraikitzea dela.

Arrasateko azken IGPa

Deba Garaiko azken Interbentzio Gune Partehartzaila (IGP) aste honetan zehar bildu da Aita Menni ospitalean. Guztira, 57 arrasatearrek izan du Guneetan parte hartzeko aukera, Santa Agedan elkartu diren sei Guneetan. Administrazioaren enkar-guz, Gizarteaz gabineteko soziologikoak antolatutako Maltzaga-Urbinaren inguruko eztabaida prozesua Donostiara pasako da orain (bi IGP bilduko dira han), eta ondoren Deba Behea (lau IGP Elgoibarren) eta Gasteiz (bi IGP) ukituko ditu.

Udala ICTEko bazkide


Udalak ICTE enpresa berrian parte hartuko du bazkide gisa. ICTE Saiolane sortutako kooperatiba bat da, eta bere helburua hirugarren adinerako zerbitzuak eskaintzea da. Neurri honen aurka azaldu zen PSOE azken udalbatzan, eta EAJK subentziora ematea nahiago zuen kooperatibako bazkide izatea baino.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Joan den zapatuan **Albina Madinabeitiak** 85 urte bete zituen. Hori zela eta, instrumento eta guzti Albinaren etxe azpira joan, eta Arrasate Musikaleko hainbat musikarik zorionak eskeini



zizkieten. Albinak erabat hunkiturik, berak ere bibolina atera eta pieza batekin eskerrak eman zizkien. Gainera, bandejakada bat kroketa oparitu zioten, Albinari asko gustatzen zaizkio eta.

Joan den ostiralean izen ziren Gesalibarren jaiak. Herri-afarian bildurik, jai giroan sartu ziren auzotarrak. Ikusten denez, emakume ugari joan zen afarira. Afalostean, Enbeita eta Sorozabal bertsolariek berotu zuten giroa.



**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

**IBARRA
Garajea S.L.**



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99



Santageda-eskean etorri ziren AEDko Gazte Mobidakoak, ATBra. **Andoni Urzelaiak** jakina, ez zuen denborarik

galdu. Kamara hartu eta grabatzeari ekin zion. Ah, oso ondo abestu zuen AEDko koroak.

Laso-Arregi

**Galesen badago taldea bat hizkuntza minorizatu-
tuen inguruan lan egiten duena. Lan egiteaz gain, ikasi ere egiten dute. Horregatik batzuk euskaraz hitzegiteko gai dira. Horietako sei asteartean Arrasatera etorriko dira, hemengo elkar-teak ezagutu eta bide batez giroan murgiltzera.**



Jabi Hidalgo eta **Arantza Arregi**, azaroaren 23an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Kanariasera joan ziren. Zorionak bioi!

IZEN PROPIOAK

● **Leire Pagaldai**, 20 urte, eskoitzarra, AEDn lanean hasi da bekario bezela. Sentsibilizazio arloan lan egingo du. Leire Almenen TASOC, animatzaile sozio-kultural, modulua ikasten ari da.

● **Pello Zapirain**, 19 urte, AEDn lanean hasi da bakario bezela. Kultur arloan lan egingo du. Pello lesakarra da eta Almenen TASOC modulua ikasten ari da.

● **Maite Agirrebeitia**, 26 urte, arrasatearra, aurrerantzean Fagorreko komertziala izango da Alikanten. Maite publizitatean lizentziatua da eta orain arte ARKOn lan egin du.

.....
URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

mokasin
Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Mendi taberna


MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

LORAMENDI KIROLAK



ZAPATILAREN ASTEA



**%20 MARKA GUZTIETAN
%50 ZENBAKI SOLTEETAN**



ASTEBETE, BESTERIK EZ APROBETXA EZAZU AUKERA



Etxe-Aundi



Galdetze hutsagatik andregaiak oparia jasoko du


ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Zuen eskontza gurekin ospatzen baduzue,

EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU
Anna de Codorniu



Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Markak hautsi dituen goleada

Ezkiñako Hontzak taldea ez da bigarren fasera sailkatuko, baina bere tokitxoan egin du dagoeneko Zaldibarko futbito txapelketaren historia laburrean: 28 gol sartu zizkieten AC Surcosekoek. Sekula futbito lehiaketa honetan izan den goleada handiena asteburu honetako 28-1 hori izan da. Ia-ia gol bat minutu t'erdio. Erraz esaten da, ezta?

Markagailu harrigarri horrez gain, bi

talderen kanporaketa komentatu behar dugu asteburu honetan. Dagoeneko hiru partidu besterik ez dira falta lehen fasea amaitzeko, eta talde askok sailkatzeko aukerarik ez dutenez, utzikierian jausten dira jokariak. Eta halaxe gertatu dira asteburu honetako bi kaleratzeak (Alla Kuidaus eta Resakas), jokari gutxiegi joan zelako tokatzen zitzaizkien partiduetara.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	16	16	0	0	110	23	32
TRIKITI	16	15	0	1	75	17	30
ARLUTZ	16	11	3	2	74	29	25
JEY JULIWER	16	10	4	2	64	29	24
ZOTZ	16	10	3	3	57	48	23
UGLYS TXINATO	16	10	2	4	66	45	22
ANBOTOSTE KT	16	9	3	4	46	28	21
SOKOAKOAK	16	10	1	5	67	50	21
BIZKORRAK AVE. T.	16	7	3	6	57	43	17
BERANGO SUK.	16	7	1	8	52	46	15
KOXKAS	16	6	2	8	45	49	14
IKATZ	16	5	2	9	54	80	12
EUSKAL INDARRA	16	5	1	10	68	76	11
BAYERN LENITZ	16	5	0	11	37	69	10
AUF DEM KOFFER	16	4	1	11	33	62	9
RESAKAS	16	3	3	10	40	57	9
WHISKERIA LINDE	16	4	1	11	39	103	9
FRAGUEL GOL	16	2	3	11	34	59	7
ALLA KUIDAUS	16	3	0	13	26	87	6
ETXE MOBILIARIO	16	1	1	14	34	78	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	16	16	0	0	111	39	32
DANOK LAGUN	16	9	7	0	43	21	25
ZULOAK	16	11	3	2	58	31	25
LEINTZ GARAGAR.	16	11	2	3	76	29	24
ALPEN KRAUSSER	16	10	2	4	72	76	22
BUKANAK	16	10	2	4	71	37	22
IRATI STS	16	8	5	3	60	33	21
ARR. KIROLAK	16	10	0	6	58	42	20
TRONKOTEAK	16	9	2	5	50	49	20
BETRAYER	16	8	2	6	66	46	18
OJO AVISORE	16	5	3	8	65	63	13
EXCAV. LETE	16	4	5	7	40	47	13
GANBELAS 16	16	6	0	10	46	53	12
NOTXINGAN FLO.	16	4	4	8	48	62	12
OOOLE	16	5	1	10	51	80	11
DIEGO ANTONIO	16	4	1	11	45	58	9
FANCY BOIS	16	3	2	11	38	65	8
KOPYPREST	16	3	1	12	42	76	7
MONTERREY Z.B.	16	2	1	13	38	97	5
ATXANTA KE TE...	16	0	1	15	24	98	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NABARROS	16	12	2	2	64	29	26
FOSFOROS	16	12	1	3	78	27	25
LOS HEREDIA	16	12	1	3	56	24	25
MIKELOS	16	12	1	3	70	32	25
KAKAJAURI	16	9	5	2	59	30	23
ARR. KRISTALDEGIA	16	10	3	3	58	33	23
MOTZ	16	8	1	7	71	45	17
LOS DALTON	16	7	2	7	52	54	16
PEPELUS	16	7	2	7	58	43	16
FOTO IMAGEN	16	6	3	7	46	52	15
TXOKO TABERNA	16	7	1	8	33	49	15
HIREI	16	6	2	8	52	53	14
KIRTEN TROPEL	16	5	4	7	34	45	14
ADELAIDA HAIZEA	16	5	3	8	38	49	13
MZK GANBELAS	16	5	2	9	43	53	12
POTROSORRI	16	6	0	10	34	43	12
LEYA	16	5	1	10	46	80	11
SIBILIUS ROVER	16	4	0	12	22	51	8
BORROCKN ROLL	16	4	0	12	40	83	8
CORINTO TABERNA	16	1	0	15	32	111	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULUS	16	13	3	0	123	39	29
POTROAK LORAT.	16	12	2	2	74	37	26
AC SURCOS	16	12	2	2	99	31	26
TUTTIFRUTI	16	11	4	1	79	42	26
TOVARITX	16	12	2	2	60	36	26
REVOLUTION ROCK	16	12	1	3	78	34	25
CARBUROS	16	10	4	2	64	27	24
FRANCISCANERR	16	10	1	5	77	51	21
LASO ARREGI	16	8	1	7	54	55	17
NUEVO TABERNA	16	7	2	7	44	47	16
GURE LEKU	16	6	2	8	50	59	14
LOS DIMY	16	4	6	6	51	43	14
SOLANO 7 MARES	16	6	2	8	65	78	14
KRISKIBALDA	16	5	3	8	59	66	13
MACCABI DE LEV.	16	4	2	10	38	68	10
BODISCA	16	3	2	11	30	76	8
ILUNA TABERNA	16	3	1	12	31	97	7
EZKINAKO HONTZAK	16	1	0	15	28	120	2
KOAK LAIT	16	1	0	15	22	55	2
ELISABETH	16	0	0	16	31	96	0

FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ARGI PLASTIC
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa berria: Kanpatorrea, 2 (Parrokia ondoan) ETORRI IKUSTERAI!
Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

EPELDE
argazki denda
Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

M
MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gertean
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.
Boulevard, 11 5ª-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA
Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!
RUTH GATZAGA
Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE
• Eguneko menua
• Asteburuetan menu berezia
• Paregabeko karta



Partidu mordoxka bat destakatuko dugu ihauterietako aste-buru honetarako: Leintz Garagardotegia - Zuloak, Nabarros - Los Dalton; Arrasate Kirolak - Tronkoteak; Argi Ibili - Danok Lagun (taldeko 1.a 2.aren aurka), eta Revolution Rock - Tovarixtx. Ea inor koko janzten ausartzen den.

BELARRIRA

◆ **Bi talde kanpora.**

Aurreko jardunaldi guztietan talde bakarra geratu zen txapelketatik kanpo: Koak Lait, baina oraingo honetan, beste bi gehitu zaizkio: Alla Kuidaus eta Resakas, biak A taldekoak, eta biak motibo beragatik, bost jokalaria garaiz ez azaltzeagatik (10 minutu itxoiten da).

◆ **Jokatuko ez diren partiduak.** Iaz markatutako arau bera aplikatuko da talde hauek jokatu ez duten partiduetarako. Beren kontrario izan behar zirenek 1-0 irabazi balute bezala zenbatuko da sailkapenean, eta bi taldeen orain arteko emaitza guztiak balekotzat joko dira. Gure tauletan eduki egingo ditugu, azken orduan zuzenketak egin arte.

◆ **Bilerarako deia.**

Lehen fasea amaitzean, bilera egingo da sailkatutako 32 taldeen artean, bigarren faseko zozketa eta antolamendua egiteko. Bilera otsailaren 28an, asteartez, izango da Monterronen, arratsaldeko 7etan.

EMAITZAK

A TALDEA

Suministros Ugarte 9 - Whiskeria Linde 1
Resakas 0 - Uglyx Txinat0 1
Jey Juliwer 2 - Zotz 2
Fraguel Gol 0 - Trikiti 5
Etxe Mobiliario 2 - Sokoakoak 3
Berango Sukaldeak 5 - Koxkas 6
Auf dem Koffer 5 - Ikatz 8
Anbotoste KT 6 - Euskal Indarra 2
Alla Kuidaus 0 - Bizkorak Avenida Taberna 1
Arlutz 1 - Bayern Lenitz 4

C TALDEA

MZK Ganbelas 4 - Potrosorri 1
Mikelos 5 - Pepelus 1
Los Dalton 1 - Sibilus Rover 0
Kirten Tropel 3 - Nabarros 3
Hirei 3 - Motz 8
Fosforos 3 - Los Heredia 5
Txoko Taberna 4 - Leya 2
Arrasate Kristaldegia 2 - Kakajauri 2
Adelaida Haizea 2 - Foto Imagen 4
Corinto Taberna 2 - Borrockn Roll 5

B TALDEA

Notxingan Florest 2 - Tronkoteak 4
Leintz Garagardotegia 12 - Ooole 2
Irati STS 2 - Zuloak 2
Fancy Bois 2 - Ojo Avisore 1
Diego Antonio 7 - Monterrey Zubi Bel 1
Bukanak 5 - Kopyprest 1
Atxanta ke te merece 0 - Ganbelas 3
Argi Ibili 3 - Excavaciones Lete 1
Alpen Krausser 2 - Danok Lagun 2
Arrasate Kirolak 2 - Betrayor 3

D TALDEA

Revolution Rock 3 - Tuttifrutti 3
Maccabi de Levantar 1 - Tovarixtx 5
Laso Arregi 1 - Zulus 7
Kriskibalda 3 - Solano 7 Mares 7
Franciscanerr 4 - Potroak Lorategi 1
Elisabeth 2 - Los Dimy 11
Iluna Taberna 1 - Gure Leku 6
AC Surcos 28 - Ezkiñako Hontzak 1
Nuevo Taberna 2 - Carburos 4

ADI!!!

Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu



GARAJEAKSALGAI

Amaia antzokiaren ondoan, Ferixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!

Prezio harrigarriak

Informazioa eta salmenta: Tfnoa: 79 19 96 ARRASATE

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 12

Zaldibar

- 08.50 Notxingan Florest - Ooole
- 10.00 Fraguél Gol - Sokoakoak
- 11.00 Kirten Tropel - Motz
- 12.00 Anbotoste KT - Bizkorak Avenida Taberna
- 13.00 MZK Ganbelas - Pepelus
- 14.00 Bodisca - Gure Leku
- 15.00 Revolution Rock - Tovarixt
- 16.00 Kriskibalda - Potroak Lorategi
- 17.00 Bukanak - Ganbelas
- 18.00 Arlutz - Whiskeria Linde
- 19.00 Auf dem Koffer - Euskal Indarra

Iturripe A

- 10.00 Suministros Ugarte - Uglys Txinato
- 11.00 Leintz Garagardotegia - Zuloak
- 12.00 AC Surcos - Carburos
- 13.00 Etxe Mobiliario - Koxkas
- 15.00 Corinto Taberna - Potrosorri
- 16.00 Maccabi de Levantar - Zulus
- 17.00 Jey Juliwer - Trikiti
- 18.00 Diego Antonio - Kopyprest

Iturripe B

- 11.00 Irati STS - Ojo Avisore
- 12.00 Atxanta ke te merece - Excavaciones Lete
- 13.00 Hirei - Los Heredia
- 15.00 Franciscanerr - Los Dimy
- 16.00 Los Dalton - Nabarros
- 17.00 Berango Sukaldeak - Ikatz
- 18.00 Arrasate Kirolak - Tronkoteak

Igandea 13

Zaldibar

- 08.50 Fancy Bois - Monterrey Zubi Bel
- 10.00 Txoko Taberna - Kakajauri
- 11.00 Nuevo Taberna - Tuttifruta
- 12.00 Mikelos - Sibilius Rover
- 13.00 Laso Arregi - Solano 7 Mares

Iturripe A

- 10.00 Argi Ibili - Danok Lagun
- 11.00 Fosforos - Leya
- 12.00 Iluna Taberna - Ezkiñako Hontzak

Iturripe B

- 10.00 Alpen Krausser - Betraye
- 11.00 Arrasate Kristaldegia - Foto Imagen
- 12.00 Adelaida Haizea - Borrockn Roll



Jokalarien kaleratzeak belarrondoka aritzeagatik

Joan den asteburuan, bi ekipo kale-eratzeari aparte, bi jokalarire lehiaketatik espulstatu egin dituzte antolatzaileek. Betraye-Arrasate Kirolak partiduan gertatutako tangana txiki bat izan da espulstazioaren arrazoia. Korner baten sakean, Betrayereko atezainak oratu egin omen zion Arrasate Kirolakeko jokalarire bati, eta ostiko batekin erantzun zion hark. Besteak, berriz, eskuarekin kolpea aurpegira, eta hatzamarra sartu omen zion begian. Eta horrela segitu zuten, elkarri belarrondoka.

Arbitroak kanporatu egin zituzten bi jokalarire partidurorretan, eta antolatzaileen bileran biak txapelketatik kanpo uztea erabaki zuten.

Zaldibarkoa lagun-arteko lehiaketa izan arren, batzuk konpetizioa serioegi hartzen duten seinale izan daiteke aurreko partiduan gertatutakoa. Elkarren arteko lehiakortasun handiko partiduetan gertatzen dira haserraldi eta bronkatxoak, baina horrenbesteko ere ez da.

Lehia biziko partidurorietako beste bat asteburuko Fosforos-Los Heredia izan zen. C taldekoak dira bi ekipoak lidergoagatik burruka estuena duen horretakoak, eta larunbat arratsaldean emozioz eta polemikaz beteriko partidur jokatuz (aste honetako gehigarriko argazkiak partidur horretakoak dira). Azkenean, Los Heredia nagusitu zen 3-5.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

● Hernandez eta Foroni, salvadortarrak

“Gerra amaitu da, indarkeria ez”

Mario Hernandez eta Nicolas Foroni El Salvadorretik izan genituen bisitan berriki Arrasaten. Hernandez San Salvadorreko UCA unibertsitatean irakaslea da, eta Foronik lehen lurralde liberatuak zirenetako formakuntza proiektuetan dihardu lanean.

— Zein da zuen lana El Salvadorren?

— Batez ere hezkuntza lanean dihardugu. Gerra garaian, Estatuak ahaztuta zeuzkan zonalde liberatuak eta beste asko. Horietan ordeko estrukturak jaio ziren, komunitateek sortutako eskolak, garapenerako programak, alfabetatze planak, formakuntza teknikokoak. Negoziazioen bidez, Estatuak umeen oinarrizko heziketa bere esku har dezan lortu nahian gabil-tza, baina nagusien heziketa, formakuntza tekniko eta okupazionala lehen bezala daroa-gu. Praktikan, umeena ere bai, Estatuak ez duelako kargu hartu nahi.

— Hauteskunde prozesuan, ultra-eskumaren erasoak gogortu egin dira, ezta?

— Indarkeria egoera ez da amaitu. Gerra amaitu da, baina indarkeria ez. Orain, indar progresistak 3. indar

politikoa dira. Eskumak lidergo politikoari eusten dio hauteslegoan. Kanpaina para-ofizial eta pro-gubernamentala indar progresisten aurkako intimidaziozkoa da. Ora-indik ezin dugu demokrazia hitz egin El Salvadorren. Zerbait errepresio-bide jausi dira, baina funtsezkoenak ez dira desagertu, hau da, oinarrizko giza-eskubideen zapalkuntza. Egoera gogorra da. Baina ez da lehen bezain agerikoa. Altxamendu herrikoirik, indarkeria egoera argiagorik ez badago, fenomenoak oharkabean pasatzen da.

— Horren aurrean, zer egin dute progresistek?

— Gure jokabidea eztabaidatzen eustea da, probakazietan ez erortzea, euren jokoan ez sartzea, gatazka ez areagotzeko. Eta aldi berean, jakina, presio egin benetan justizia egin dadin. Krimenak estruktura ofizialekin daude lotuta, militarren esturturekin edo boterearekin. Hori gehiago gerta ez dadin presio egiten dugu.

— Zer iruditzen zaizue euskal kooperanteen lana?

— Euskadiko jendea sentibiltate eta lan-gaitasun handikoa iruditzen zait. Askotan geratu dira bizi izaten eta ez zaie zaila gertatu integra-



tzea. Nazioarteko kooperazioak alderdi asko izan ditzake, baina kooperantea benetan lanera doanean, borrokan integratzen, oso baikorra iruditzen zait. Munduaren beste partetik, Euskaditik, halako kooperazioa dagoenean, nazioarteko lankidetzak posible dela ikusten da.


— Bi ezaugarri garrantzitsu ditu euskal kooperazioak. Batetik, jendearen indarra, oso herri prestua da euskalduna. Munta handiko proiektuei ekiten diete. Bestetik, Euskadiko egoera beragatik, kooperanteek errazago ulertzen dituzte desberdintasun kultural, etniko eta linguistikoak. Beste jende batek baino gehiago errespetatzen dute hori. Beste jende asko izakera bakar batera dago ohituta, eta El Salvadorren ere izakera bera transmititzen dute. Nire

ustez kooperazioa balekoa da berdintasun eta elkartasun erlazio bat dagoenean, beste kolonizazio kulturalen errotzen dira, “han hala egiten dugu” esanez.

— Nola ikusten duzue Mexikoko Chiapasko altxamendua?

— Egoeraren ondorio logikoa da. Bi oinarri ditu honiek. Batetik, pobrezia. Jendearen bizimodu baldintzak jasanezineko puntura iristen dira batzuetan: pobrezia izugarria, lurraren jabetzaren arazo konpontzeke, oinarrizko zerbitzuen falta, osasun egoera. Pobrezia eta bazterketa arazo hor dago. Beste oinarria, Latinamerika osoan indarra hartzen ari dena, fenomeno indigena da. Biztanlego indigena baztertu bat dago, bazterketa ekonomiko eta sozialaz gain, herri gisa ere baztertua dagoena. Beren kultura eta hizkuntza berrezkoa duten herriak dira. Bazterketa bikoitza jasaten dute, eta horregatik dago presentzia indigena nabarmen hori altxamenduan.

● “Euskal kooperanteek errazago ulertzen dituzte desberdintasun kultural, etniko eta linguistikoak”



Orain eraikita dagoen bezalako beste 15 bloke eta pilotalekua eraikiko dira Uharkapen, segurtasun-horma egin ahala.

Uharkape: zauriak sendatzeko ordua

Luis Fernandez

1990eko udan, Uharkapeko etxebizitzetarako desmote lanetan hasi zirenean, mendi-magala irristatu egin zen. Gatazka luze baten hasiera izan zen hura. Azkenean, joan den astean, inplikaturako aldeek akordio bat lortu eta sinatu zuten.

Hitzarmenak korporazioaren aho-bateko onespena lortu zuen joan den ostiraleko udalbatzan. Ez zen izan eztabaidarik: alderdi guztiak zeuden arazoari konponbide bat eman nahian, eta hitzarme-

nak hori ekar dezakeelakoan daude alde guztiak.

“Udalak satisfakzio osoz sinatu du akordio hau”, adierazi zuen Xabier Zubizarreta alkateak bozketaren ostean. “Ea orain arte sortutako zauriak sendatzen diren”, gehitu zuen. Izan ere, auzi mingarria izan da hau, batez ere inplikaturako bi bizilagun taldeentzat: Azatzako etxebizitza kooperatibako 18 familientzat, eta Uharkapen etxea erosi duten beste 100 familientzat. Alde batetik, ez da harritzekoa, norberaren etxebizitza izateko gertatzen diren zailtasunak kontuan izanda.

Hitzarmena sinatu dutenak, Azatza Auzoa koopera-

tiba, Udala, Construcciones Irgala etxe-eraikitzailea eta Jose Luis Iñarra kaleko bizilagun talde bat (etxerako biderik gabe geratu zirenak) izan dira. Uharkapeko etxeak erosi dituztenen elkarteak ez du sinatu, auzia zuzenean ez zegokiolako, baina ados daude hitzarmenarekin, euren etxeak egin egingo dituztenez.

Mendia behera etorri zenean, Altamirarako bidea moztuta geratu zen, eta Azatzako etxeetan pitzadura larriak azaldu ziren. Burdinazko indargarri batzuk jarri behar izan zituzten, eta oraindik etxeei eusten daude. Argi geratu zen, Uharkapen ezer egi-

A

Kalteen parte handiena aseguru-etxeen bitartez berreskuratzekeo esperantza dago.


ten jarraitu behar bazuten, mendiari eusteko eta goiko etxeak ziurtatzeko horma bat egin behar zela.

Udalak hormaren proiektua onartu zuen, baina horma egiten ari zirela, Azatzako etxeetan mendi-mugimendu gehiago igertzen zirela eta, epaitegien bidez geldiarazi zuten obra. Ordutik hona, aurrerapen gutxi; negoziatu izan da, baina epaitegietan kateatuta egon da auzia.

HITZARMENEN PUNTUAK

Impasse luze horretatik irteteko bidea hitzarmen hau izan da. Azatza auzoko etxebizitzaren segurtasunerako hiru faseko obra egiteko modua zehazten du. Lehen fasean, etxeen zimentazio eta egitura-konponketak ziurtatuko dira. 2. ean, mendi-magalari eusteko hormari ekingo zaio. 3. fasean, azkenik, etxeetako azken konponketa eta dekorazioa egingo da. Fase bakoitzean, Azatzakoei gainerako kalterik gertatuko balitzaie, Udalak abal batzuk izango ditu kalte-ordain posibletarako: 1. eta 2. faseetarako 250 milioi PTako bi abal izango dira, eta 3. fasearako 170 milioi koa.

Obra hauek Udalak eta Irgala eraikitzaileak ordainduko dituzte printzipioz. Guzti gorabehera 330 milioi pe-



Azatzako etxeetan burdinazko indargarriak daude oraindik.

zeta izan daitezke, nahiz eta gero aseguru-etxeen bitartez parte handiena berreskuratzeko esperantza dagoen. Ordainketa, oraindik erabakitzeko dagoen prozedura penalaren epaiak erabakiko du. Prozedura hori Azatzak Irgalako eta Udaleko zenbait teknikari eta arduraduni jarritako denuntziaren ondorio da. Baina beste ekintza judizialei uko egin die Azatzak, eta epai horretatik etor daitezkeen in-

dernizazioak ere ez dituzte beretzat hartuko, obrak finantzatzeko izango dira. "Pozik gaude akordioarekin", adierazi digute Azatza kooperatibatik. "Baina beldurra beti izaten duzu, obrak kontuz egin beharko dira".

110 ETXEBIZITZA

Azatzako etxeak ziurtatzeko obrak egin bitartean, hasi daiteke jada Uharkapeko etxeen eraikuntza. Orain zaz-

A

Segurtasun lanak hiru fasetan egingo dira, eta 330 milioi kostatuko dute.

pi etxebizitzako bloke bakarra dago eginga, eta horren atzean beste bat eraikitzen hasiko dira laster. Hurrengo blokean, B-9 delakoan, martxoaren lehen hasiko dira lanean (izatez, Irgalak bazuen hori egiteko epailearen baimena). Guztira, orain eginda dagoenaren antzerako 16 bloke doaz Uharkapen. 110 etxebizitza guztira, eta 300 garaje leku inguru.

Irgala eraikitzailearen eta Uharkape elkartearen abokatuak, Arturo Spagnolok, une orotan akordioa lortzen saiatu izan dela esan digu. Adostasuna lortzea hainbeste kostatzen izana, "auzia epaitegietara iritsi izanagatik izan da", Spagnoloren hitzetan, "Justizia oso astiro dabilelako".

Pilotaleku berria

Ez da Uharkapeko etxeen eraikuntza auzi honetan gelditu egon den proiektu bakarra. Arrasateko Ferixalekuko pilotaleku berria ere paperetan lo egon da, auzia konpondu bitartean. Orain, "esnatu" egingo da proiektu hori, eta baliteke aurten bertan obrak egiteko moduan izatea.

Frontoia eraiki behar den tokian, eginda dagoen etxe-bloke bakarraren eta Ferixalekuko ikastetxearen artean, kontentzio-horma eginda dago. Dagoeneko, 94rako udal aurrekontuen zirriborroan ere sartuta dago pilotalekua eraikitzekeko partida. Guztira, 296 milioi PTako proiektua da hau, eta udaleko oposizioan kontrako jarrera ezagunak ditu aspalditik.

Pilotaleku berria udalarena izango da, eta ez dago

erabakita nola gestionatuko den. Aukera bat AUKEaren esku uztea izango litzateke, edo pilota elkartearekin esplotaziorako akordio bat lortzea. Izan ere, profesional mailako partiduak jokatzeko moduko frontoia izango da. Zurrumurruak ibili dira airean, Arrasateko frontoia Asegarcek esplotatu nahi ote lukeen. Berez, Asegarcek ez dauka pilotaleku propioirik, Bilboko Deportivoa ez bada, baina hori palaz jokatzeko da batipat. Hala ere, Asegarceko gerenteak, Iñigo Salbideak, ukatu egin digu halako asmorik agertu izan dutenik.

Pilotalekuak beste erabilera bat ere izan lezake, kantxaren azpikaldean lokal huts handi bat geratuko da eta. Espazio hori kontzertuetarako edo gazte-ekintzetarako aproposa izango dela uste dute udalean.

Bigarren fasea lehen postuan hasiko du Arrasatek

Lehen fasea 2. postuan amaitu arren, 2. fasea lehenengoan hasiko du Arrasate Saskibaloia Taldeak. Nola da posible? 2. mailako bi taldeetatik bost lehenak pasatzen dira bigarren fasera, baina orain arte elkarren artean jokatuak partiduen emaitzak zenbatu egiten dira, eta Arrasatek bere taldean sailkatu ziren gainerako lau taldeekin jokatuak zortzi partiduetan bi bakarrik galdu zituen. Galdutako beste bi partiduetan, zorionez, sailkatu ez diren taldeekin izan dira.

Arrasateren posizio ezin hobea, DF Araba - Caja Vital derbi gasteiztarrek erabaki zuen. DF Arabak irabaztea komeni zitzaion arrasatearrei, eta hala gertatu zen. Caja Vitalek partidua inportatu egin zuen, DF Arabak ordutegia abisatu gabe aldatu zuelako, baina federazioak ez du aintzakotzat hartu. Arrasatek, bere aldetik, 1. faseko azken partidua irabazi egin zuen, nahiz tramite hutsekoa zen (Paules 84 - Arrasate 94).

Arrasatek bigarren fasean lider posizioan hasi arren, ez du erraz izango igoera lortzea. Bi lehenak sailkatuko dira igotzeko, eta Txus Brizuelaren etsai nagusiak Loiola Indautxu talde bilbotarra eta Askatuak donostiarra izango dira. Loiolak Arrasateren talde berean jokatu du, eta bilbota-



Brizuelaren mutilak sekula iritsi ez diren mailan ari dira jo ta ke.

rrak erraz gainditu zuten Arrasate azkenengoan.

Askatuak atzerago dago, Donostiako beste taldeak, Athleticok, azken partiduan

irabazi egin ziolako. Atletico San Sebastianek eta Getxok ere aukerak izan dituzakete igoeragatik burrukan egiteko.

Lehen fasearen amaiera (A taldea)

Taldea	Puntuak
1. Loiola	33
2. Arrasate	32
3. La Salle	31
4. Ordizia	29
5. DF Araba	28
6. Caja Vital	26
7. Emb. Argal	25
8. Gasteiz	22
9. Paules	22
10. Cantabria	22

Bigarren fasearen hasiera (A eta B taldeetako 5 lehenak)

Taldea	Puntuak
1. Arrasate	14
2. Loiola	13
. Atletico SS	13
4. Askatuak	12
. Getxo	12
. Altsasu	12
. Ordizia	12
8. Patronato	11
. La Salle	11
10. DF Araba	10

LABURRAK

Denak kanpora pilotan

Pilotako Euskal Ligan azken partiduetan jokatuak dituzte arrasatearrek asteburu honetan. Junioren bikotea, eta senior eta jubenetan banaka, denak kanporatuta geratuko dira. Bitartean, Gipuzkoako Kopan ere amaitu ziren arrasatearren aukerak, senior bikotea Aretxabaletaren aurka kanporatuta geratu zenean. Ea zorte hobea dagoen hurrengo lehiaketetan: Deba Arroko txapelketan eta martxoan hasiko den herri-arteako Gipuzkoako txapelketan.

Lidergoan parra eskubaloian

Arrasate Kirolakek lidergoan jarraitzen du eskualdeko 2. mailan. Larunbatean 28-21 irabazi zioten Legazpiko La Salleri. Hor segitzen dute igoerarako burruka estuan, parra baitaude lidergoan Pasaitarra eta Bergararekin.


Nesken derbia

Asteburu honetan derbia izan zuen emakumezkoen Mondrak, Aretxabaletaren aurka. Lehen itzulian, parra egin zuten Atxabalpen, nahiz eta ustez Mondra nagusi izan. Beraz, errebantxa gogoarekin joan ziren arrasatearrak, eta 1-2 irabazi zioten UDARI. Hala ere, partidu triste eta aspergarria izan ei zen.

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Emaitza bikainak gipuzkoako judo txapelketan


PENALTIAK

● **Arrasate Rugby Taldeak, 2. euskal mailako lehen faseko azken partidua jokatu du larunbatean Garagartzan. Lider dago Arrasate, eta bigarren fasera ez sailkatzeko, Durangoren kontra 17 puntugatik galdu beharko lukete.**

● **17 punturen aldeko derrotarik ez dute espero rugbyleri arrasatearrek, baina irabaztea hobe, badaezpada. Garai-penarekin, Arrasate eta Universitarioos sailkatuko dira 2. fasera, eta seguruenik 2. mailako beste taldeko bi lehenekin ligilla bat jokatu dute. Hortik, garailea bakarrik igoko da 1. mailara.**

Gaizka Aranegi judoka arrasatear gazteak urrezko domina eskuratu zuen joan den asteburuan Gipuzkoako Txapelketan, 21 urtetik beherakoen kategorian (iaz bigarren izatea lortu zuen). Beste judoka arrasatear batzuk ere izan ziren lehiaketa berean, eta Itziar Zabalak ere arrakasta nabarmena lortu zuen: zilarrezko domina, 15 urtetik beherakoen kategorian. Asteburu honetan, judoka arrasatearrek Euskadiko txapelketan lehiatzeko aukera izango dute. Ea zorte bera daukaten.

Arrasateko judo taldean 55 neska-mutil entrenatzen dira. Julio Gallego oñatiarra da euren entrenatzailea, eta nahiko emaitza politik ari dira lortzen. Gallegoren aginduetara judo arrasatear



Gaizka Aranegi bere entrenatzailearekin.

rra bere maila gorenera iritsi da, eta gaur da eguna gerriko beltzeko Arrasateko lehen judoka daukaguna: Gaizka Aranegi bera, 18 urtekoa. Ohorezko maila iazko azaroan lortu zuen Aranegik, eta orain *dan* direlako mailak eskuratzeari ekingo dio.

Itziar Zabala gaztea ere gogor ari da, eta askotan mutilekin egiten du burrukan. Duela hamar bat urte ia ez zegoen neskarik kirol hau praktikatzen, baina badira dagoeneko dozena bat entrenatzen ari direnak Arrasaten.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 0 - Durango 0
Emakumezkoak: UDA 1 - Mondra 2
2. regionala: Elgoibar 5 - Mondra 0
Jub. Ohorezko Liga: Euskalduna 2 - Mondra 2
Jub., 2. maila: Gazteak 2 - Arrasate 1
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 2 - Aitzgorri 2
Kadeteak, 2. maila: Bergara 2 - Arrasate 5
Haurrak: Eibartarrak 1 - Arrasate 6
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Erandio.

Saskibaloia

2. maila: Paules 84 - Arrasate 94
Sub-23: Arrasate 95 - Aralar 60
Kad., mutilak: Zarautz 66 - Arrasate 57

Hurrengoak:

Sub-23: Santo Tomas - Arrasate. Donostia, igan., 12.00.
Jub. mutilak: Arrasate A - La Salle. Musakola, igan., 11.30.
Jub. neskek: At. San Sebastian - Patterncam. Donostia, lar., 12.00.
Kad., mutilak: Loiola A - Loramendi Kirolak. Donostia, lar., 16.00.
Arrasate B - Irurok B. Musakola, lar., 10.00.
Kad., neskek: Benetton - Loiola. San Viator, ostirala, 19.00.

Rugby

Jubenilak: Gaztedi 0 - Arrasate 5
Hurrengoak:
Euskal liga, 2. m.: Arrasate - Durango.

Garagartza, lar., 16.30.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 28 - La Salle Legazpia 21
2. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 23 - Bidebieta 24

Pilota

Euskal liga:
Senior, banaka: Bermeo 18 - Arrasate 14
Jubenil, banaka: Arrasate 14 - Zaramaga 18
Usurbil 19 - Arrasate 22
Hurrengoak:
Jub., banaka: Soraluze - Arrasate.
Senior, banaka: Errioxa - Arrasate

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78


HAURTXOAK
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

 **PEUGEOT-TALBOT**
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Aratuzte, okelarre eta inaute



BITTOR KAPANAGA (ETNOGRAFOA)

Ihauterietan gagoz bete betean, arinkeriaren eta jolaskizunen urtarooan. Baina, guzti horren azpian, zer dago benetan? Gure lurraldean jaialdi hau izendatzeko izen asko dugu. Izenek argi egiten digute iragan ilunean bideak aurkitzeko, baina izenez gain, beste zer garrantzizkorik ere badugu. Egunkari batean "Ihauteri" agertuko zaigu soilik; beste batean "Inauteri" eta "Inaute" erabiliko dituzte. Eta mendebal osoan, herriak "Aratuzte" (Aratoste) erabiliko du. Baina hau ere ez da erabateko egia, bai alde batean nahiz bestean gehienek "karnabalak" esango dutelako. Xelebreak gara euskaldunok, bakoitza bere karrilean joanez, ez dugu tuputz egiteko arriskurik, ghettoak egitekoa bai ordea.

Zer dago edo egon liteke guzti honen azpian? Nire us-tez (eta hau argi geratu bedi) gure aintzinako erlijio zahar-raren ospakizunetatik eliza kristauak beretzakotu ez zuten jai bakarra dugu. Badirudi, euskal kultura zaharrean sei urtearo zirela eta bakoitzak

bere jai ospakizuna izaten zuela. Hor ditugu: **Aizaro** = Aste Santua; **Erearo** (hezearo?), ekaina = San Juan; **Uztaro** = Andra Maria; **Azaro**, Arimena = Domu Santu, Gaztainerre; **Olesaro**, Eguberri = Kristoren Jaiotza. Beraz, oraingo hau izango genuke 6. urtearoa (izatez lehenengoa). Urtaro bakoitzak bere ezaugarriak ditu bereizgarri. Garaiko zereginak edo izadiaren nahiz gizadiaren ekintzak ditugu: haziak erein, uzta bildu, oleska ibili, haizeak izan, hezetasuna gailendu...


Eta zer izan daiteke oraingo garai honen ezaugarria? Zerk bereizi zezakeen? Honetan bai ez dagoela zalan-tzabiderik. Gizarte haren beharrik handienetakoa eta garrantzi handia zuena, garai honetanxe bete behar zuen: urte osoan etxeak egiteko, zubiak (zur ubiak), gurdiak, langailuak nahiz tresnak egiteko zura bildu behar zuen. Era berean, urte osoan sua egiteko egurra ere garai honetanxe inausi behar zuen. Gaur egun, bada beste eratako erregairik ere, baina zuhaitz (zuraitz Ziberuan) eta sasikiak inausteak badu bere garrantzia oraino ere. Beraz, inauste lanak izugarriko garrantzia izan behar zuen garai zaharretan. Inausketa aroa (Inaustaroa) garrantzi handikoa izan behar zen aintzinetan, orain ere horrela dugu eta. Beraz, urtaro honen aipakari ote ditugu "Inaute" eta "Inauteri" hitzak?

"Aratuzte" dugu mendebaldean eta izen honek saketanero erroten gaitu. **Aragi-**

uzte zentzua eman diote zenbaitek, eta horixe dugu funtsean, bete betean ez bada ere. Hemen gure hizkuntzak ematen dizkigu argibideak, eta esan beharra dugu, Egiptoko ehun piramide baino balio handiagokoa dugula gure euskera, iragan ilunetan argi egiteko. Hitz sakratuak ditugu: *aratuzte, arau, aragi, arata, araki, arao, arren, urren, arakeitu...* Azken hau (arakeitu = sacrificar) harrigarri baliotsua dugu: "ara-gei-tu" = ara egiteko gaitu. Bildotsak, adariak, araxeak, aratak, usoak eta beste, arakeitu egiten dira. Piztiak, katuak, xa-

guak eta beste, hil, erahil, akabatu egiten dira. Erdaldunek ere berdin jokaten dute: lehenak "sacrificar" (hacerlos sagrados) eta bigarrenak "matar" (bizia kendu). Eta erdaraz jarraituz, "carnaval" eta "carnestolendas" okela zentzuari lotuak ditugu. Okela uztea esan nahi du bigarrenak.

Okela hitza, Euskal Herri osoan erabilitakoa omen dugu. Orain arte, mendebalde osoan, Ziberuan eta beste leku askotan erabilia dugu, izenaren aldakiz bada ere: **okola** Arratian, **okela** mendebalde gehienez eta Zube-



Aretxabaletako txino dantza, ihauteri tradizionalen hurbileko aztarna.

roan, **okalea** Ataunen... Eta okela errea zen erlijio zaharreko ospakizunen oinarria. Adari errea, zikiroa (adari irena) batez ere. Honetaz argibide ugariak eta harrigarriak ditugu hor-hemen barreiatu-rik eta egunen batean lantxo bat egiteko asmotan gara. Baina harrigarriena zera dugu, gaur egun ere bizi bizirik irauten duen ohitura. Mendebaldean irauten du ohitura honek, eta honetan datza: Aratuzte aurreko igandean, lagun taldetxo bildurik (neskak gehienbat, edo neskato eta mutiko gazteak) basora joan, sua egin, zerbait aragizkoa erre (lukainkak, urdagia edo saiheskia orain) jan eta jolas egin. Egunaren izenak ezberdinak ditugu eskualde batetik bestera: Durango aldeko herrietan "Basakoipetsu"; itsasaldean "Basatuzte", "Basatoste" (basa-aratuzte); Arratia aldean "Kanpo martxo". Baina eginkizunari dagokionean,

guztiak izen bera darabilte: "Txitxi-burduntzi" (txitxi = okela, burduntzi = erregailua), beraz, Okelarre.

Nire aburuz, Okelarre sakratua Akelarre madarikatua bihurtu ziotenean, Inkisizioaren beldurrez hartutakoa izan daiteke eufemismo hau:

Txitxi-burduntzi. Eta antropologo famatu batek arestian esaten zuenez, ehun mila urte inguru izan ditzake ohitura honek. Baina ezertxo ere ez zekien honetaz neronek esan arte, lurralde honetan lanean ari izan arren.

Beraz, laburbilduz eta birribilduz, honela ikusten dut nik **inaute** jaialdi hau: aintzinako Inaustaroko jaiburua, eliza kristauak inoiz ere asimilatu ez duena, eta erlijio haretako **Aratuzte** aldiaroa hasi aurrean ospatu ohi zena.

Eta guztia argiago ikusteko, zenbait ohar kontuan hartu beharrekoak ditugu:

- Euskaldunen erlijio za-

harra eta Europako eta Asiako zenbait herrien erlijioak jatorri berekoak eta kideak izango zirela.

- Euskaldunak izango direla European aintzinako hizkuntzari eusten bakarrak, eta erlijio arloan ere berdintsu jokatu izan dutela. Barandiaranek zioenez, orain seirehun urte inguru, Anboto eta Arangio mendien ingurubilean, bere azken zirkinak egiten zituen erlijio harek. Eta gaurdaino ere iraun dutela sineskeraren haren zenbait txinpartek.


- Eliza kristauak 325. urtean Nyceako kontzilioan erabaki zuela Eguberri eta Ekain ospakizunak, eragotzi ezinean, bere egitea.

- Eta azkenez, urtaroen baieztatzaile izan daitezkeen izenak ere baditugula gure kulturaren: Udaberri (Aizaro), Uda (Erearo), Udazken edo Uragoien (Uztaro), Negulen (Azaro), Negu (Olesaro) eta Neguondo (Inaustaro).

.....

“Euskaldunon aintzinako erlijio zaharraren ospakizunetik eliza kristauak beretzakotu ez duen jai bakarra dugu aratuztea”

HAU DA ESPERO ZENUENA!!



FIAT PUNTO BERRIA!!

-KANPAZAR FIAT

TAILERRA: Bizkaia Etorbidea z/g. Tfnoa: 79 41 98
ERAKUSKETA: Araba Etorbidea, 4. Tfnoa: 79 77 66

Eduardo Clausen Zubiria

"Ivo Pogorelich-entzat, Arrasate bere bigarren aberria da"

Bizkaitar honi asko zor dio Arrasatek. Azkenaldian herriak jaso dituen bisita musikalak, Ainhoa Arteta edo Ivo Pogorelich-enak adibidez, bere kontaktuei esker gauzatu ahal izan dira. Komertzio artekaria bada ere, musikaren munduarekin duen harremana, estua da oso.

— Noiztik Arrasaterekin harreman hau?

— Aspalditik. 1983 edo 84an, Luis Sagasta ezagutu nuen eta izugarri harritu ninduen 26.000 biztanle zituen herri bateko musika akademian 800 ikasle egoteak, zoragarria iruditu zitzaidan, beraz, nire laguntza eman nahi izan nuen. Musika, niretzat, balore bat da, mugarik gabeko espresio bidea.

— Duela 10 urte Arrasate Musikalen indarra izugarria iruditu zitzazun. Hala jarraitzen du?

— Uste dut, akademiak parentesia igaro berri duela. "Kultura", "euskalduntze"-arekin konfunditu dela uste dut, eta hau ordaindu egin behar izan dute. Oso garrantzitsua iruditzen zait kultura mailan euskaldutze ahalegin oro, baina kultura, zerbait gehiago da. Modu grafiko batean esateko, bibolinak akordeoiekin eta



txalapartekin ordezkatu zituzten eta ez da folklorismoa musika handiarekin konfunditu behar. Dena den, bide onetik jo dute berriz ere: Folklorearen alde batera utzi gabe, bi gauzak konbinatzen ari dira.

— Arrasaten antolatutako diren azken kontzertu handiak, zure kontaktuei esker etorri dira. Zer erlazio duzu jende horrekin?

— Hasieran, harreman profesional hutsa izan zen. Nazioarteko pertsonaia garrantzitsu hauek Donostiara ekartzeko interesa nuen, baina noski, oso zaila zen errezitaldi bakar baterako pertsona hauek etortzea. Egin nezakeen gauza bakarra, gira bat eskeintzea zen, estatu osoko gira bat. Azkenean, eurekin etengabe harremanetan egoten zarenez, adiskidetasun finkoa lortzen duzu eta hori oso garrantzitsua da.

— Beraz, konfidantza maila horrekin Arrasatera etortzeko esker diezu?

— Bai, noski. Gainera, modu desinteresatu batean eskatu izan diet. Jakina, nire posizio desinteresatu honek, oso jarrera ezerosoan jartzen zituen, nik dena eskeintzen diet eta. Hau konpensatzeko eta kontaktua izaten jarraitzeko, Arrasate Musikalenzat jotzeko eskatu nien, eta akordio batetara heldu gara.

— Hori da Ivo Pogorelich-en kasua?

— Bai. Nik Ivo Pogorelich bere pianujole karreraren hasieran ezagutu nuen eta asko lagundu nion. Horren truke, noski, zenbait fabore eskatu nizkion eta horietako bat, Arrasaten jotzea izan zen. Oso gustoko du Arrasate.

— "Bitartekari" postuan jarrita, zer dio Ivo Pogorelich-ek

Arrasateri buruz?

— Berarentzat Arrasate berezia da. Ivo, mundu mailako pianujole bat da eta Arrasaten pianu errezitaldi bat ematea paradigmatikoa izan daitekeela kontuan hartzen du, baina zera gertatzen zaio: Berak ez duela Arrasate zuzenki ezagutzen. Bera kroata da, Yugoslabian, ideal kooperatibista bat zegoen, baina denok dakigu nola bukatu zen hori. Ideal kooperatibista horregatik, asko erakartzen du talde mailan egiten den lan orok eta Arrasateko ispiritu bateratzaile horrek izugarri erakarri du. Horren mundu polarizatuan, horrelako inizatibak dituen herri bat ezagutzeko, oso garrantzitsua izan da berarentzat.

— Zer aurreratu diezagukezu Ivo Pogorelichek joko duen obra insolito horri buruz?

— Duela gutxi esan zidan Arrasaten estreinatu nahi zuela. Agian nire iritzia izango da, baina Arrasate bere bigarren aberria dela esatera ausartuko nintzateke: Konturan euki behar da ezin dela Kroaziara bueltatu, gerran baitaude, eta familiarterako eta lagun asko hil dizkiote edo eta kontzentrazio zelaietan daude. Arrasaten oso eroso sentitzen da, nolabait, bere aberriarekin identifikatuta.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

“Play-Back Jaialdia”, sekula baino umoretsuago

LABURRAK

“Haratuzteak 1994” Argazki Lehiaketa

ASA Elkartek, SUDC Batzordearen laguntzarekin, “Haratuzteak 94” argazki lehiaketa antolatu du. Argazkiak, Arrasateko 1994ko Haratuzteekin lotuta dagoen edozein gairenak izan daitezke. Zure poltsikoari ez dio batere kalterik egingo lehiaketa honek, antolakuntza arduratuko baita argazki karretek banatzeaz eta errebelatzeaz. Otsailaren 11n, eguakoitxean, 6etatik 8etara, *Foto-Imagen*, *Laso-Arregi*, *Ikatz* eta *Epelde* argazki-denda kolaboratzaileetan jaso ahal izango dira.

Karretek jasotzeko orduan, izen-deiturak, helbidea eta telefonoa eman beharko dira dendan. Otsailaren 16 edo 17an, jasotako argazki-dendan entregatu beharko da karretea, arratsaldeko 7ak baino lehen. ASA taldeak, otsailaren 24tik martxoaren 6ra bitartean, erakusketa egingo du aurkeztutako argazki guztiekin. Otsailaren 24ean, arratsaldeko 7etan, sari banaketa egingo da. Argazki bildumarik onena aurkezten duenari, 20.000 PTAko saria emango zaio, argazki onenari, 15.000 PTA, bigarren bildumari 10.000 PTA eta bigarren argazki onenari, 5.000 PTA. Zorte on!



Joan den urteko “Play-Back Jaialdia”ko aktuazio bat.

Ezin diozu zita honi hutsik egin. Behin jaialdi honetara joan ezker, urtero errepikatzen dela diote testigiek. Egia esan, urtero egon izan da Arrasateko polikiroldegia jendez gainezka eta takila sarrerarik gabe, eta hori, zoztergatik izango da.

BOST URTEKO ESPERIENTZIA

Aurtengo “Play-Back Jaialdia” bostgarrena izango da. Antolatzaileek, S.U.D.C. batzordekoek, ondo baino

hobeto dakite zelako lana izaten den jaialdi hau prestatzea. Dena den, aurtengoa desberdina izango da: Amaia Antzokia zabalduenez, eta Musakolako polikiroldegia baino askoz baldintza hobekak batzen dituzenez, bertara eramango da jaialdia. Esperientziak jakinarazi dienez, sekulako jende pilo biltzen da eta antzokian sesio bakar batean ez dela sartuko somatuz, aurtengo “Play-Back Jaialdia” bi sesiotan burutuko da: bata arratsaldeko 7etan eta

bestea gaueko 10.30etan.

Prestakuntza lanak gabon aldera hasi ziren, baina hilabete besterik falta ez denean jendea espabilatzen hasten dela azpimarratzen dute antolatzaileek. Bestalde, partehartzaile berriak bilatzen ari dira, eta dei hori zabaldu nahi dute herriko laguneren artean.

19 “PLAY-BACK”

Dagoeneko, irrikitan egongo zarete imitazioak zeintzuk izango diren jakiteko. Urtero bezala, mundu osoko espektakulu mailako pertsonaiak imitatuko dituzte. Aurkezpen lana, Juanito Saizarrek eta Ruben Arriolabengoak egingo dute ohi-turari eutsiz. Ondoren, espektakulua hasiko da: Atraccion Fatal Taldea, Mack-Arrena, Gloria Stefan, The Autonomicas, Principe de Belair, Amistades muy Peligrosas, Las Siete Magnificas, Madona, Raphaela Cagaa, Partxis, txis, aaaah..., Hirukle Show, Xuxa, Beheko Balu Amets, Prince, Te Komunak, Mikel Guason eta Boni Eme, hori da espektakulua!

Dibertsioa eta berre malkoak ziurtatuak daude, jarlekuan esertzea besterik ez duzu egin behar. Sarre-rak, Monten, Eresin eta Xaramelan daude salgai. Takilan ordu bete lehenago egotea gomendatzen da!

**URRIN
EDARITEGIA**

Etxeko janari bereziak

Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

**Janaridenda
traspasoan.**

Negozioa martxan dago baina atenditu ezinagatik utzi behar dugu.

Tfnoa: 76 52 80

94ko haratuzteetako eskaintza bereziak

2

PELIKULA PAPERA

karrete 135 - 36 argazki
KODAK Gold 100 ASA
karrete 135 - 24 argazki
FUJI 200 ASA

995 PTA

OPARIA

Mckie Mousse edo
poltsikorako
liburuxka edo
negatiboaren
errebelatua

DIAPOSITIBAK, ERREBELATU ETA GUZTI

2

Karrete (AGFACHROME
135-36 argazki)

1900 PTA

3

Karrete (AGFACHROME
135-36 argazki)

2625 PTA

GURE ZERBITZU AZKARRAK

Diapositibak
errebelatzea

5

 orduetan

Zuribeltzeko
errebelatua

24

 orduetan

LASO-ARREGI

Kodak EXPRESS

Banatzaile Ofiziala


San Juan auzoa ☎ 79 12 75

Inprentako akatsa salbu edo salgaia agortu arteko eskaintza

• ESAERA ZAHARRA •

“Enara batek ez du udaberria egiten.”

• JEROGLIFIKOA •



Emakumezkoen izena

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10						
11					12	
		13				
14	15				16	
17				18		

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Olabarrieta, Lagun-Aroko medikua. 8. Bi alde paralelo dituen laukia. 10. Itsasteko joera duena. 11. Zerbait erretzean sortzen da. 12. (Ald.) Nazioarteko kamioietan. 13. Poztu. 14. Talka. 16. Taberna. 17. Zerbaitetarako aldi egokia. 18. Bukatu aditzaren infinitiboa.

Bertikalak 1. Salgai baten datuak emateko. 2. Hamabi hilabeteko aldia. 3. Koordinadora Abertzale Sozialista. 4. Epaikari, juez. 5. (Ald.) Zentzu. 6. Idazlan. 7. Oinaze. 9. (Ald.) Karga positiboa duen ioia. 13. Igelaren antzekoa. 15. Txakur.

• HOROSKOPOA •

Aries San Balentin eguna benetan berezia izango da zuretzat. Zergatik ote?

Taurus Ihauterietan ez zaitez pailazoz mo-zorrotu; urtean behin bada ere, eguneroko mo-zorroa baztertu beharra dago.

Gemini Eguraldiaren aldaketarekin batera onera joko du zure amodio kontuak.

Cancer ...Baina berdin dio; izan ere, hobe da berandu eta ongi...

Leo Zure begiak gaueko iluntasunaren argia bezalakoak dira.

Virgo Lan kontuan ez duzu zorte handirik izango. Zergatik? Esango nizuke zergatia, baldin eta neronek baneki.

Libra Aspertzen bazara erraza daukazu, es-tudiatzen hasi.

Scorpio Mingainaz esatea erraza da; esan-dakoa betetzea zailagoa, ordea.

Sagitaris Zure ahotsaren goxotasuna entzutean Mikel Markez datorkit gogora.

Capricorn Oso zeurekoia zara; ikasi gau-zak ematen.

Aquarius Badakit horren kontura prime-ran bizi zarena, baina bukatuko zaizu “txolloa”.

Piscis “Pasota” izan nahi duzun arren, ez dakizu zer egin besteei atenzioa deitzeko.



Kakaturia berdea

(Arthur Schnitzler)

ZUZENDARIA: Mario Gas

NON: Amaia Antzokian

NOIZ: otsailak, 19, larunbata,
gaueko 10,30etan

SARRERA: 700 PTA

ARTESZENA




ARRASATEKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALKANDUNIA

• EAMON FAGANEN GOMENDIOA •




17 urte daramantza Arrasaten, irlandarra da, eta bere herria bisitatzera joatea gomendatuko lieke mondrauetar guztiei: "oso herrialde antzekoak gara, eta euskaldunak etxean bezala sentitzen dira han". Irlandako kondaira batzuk jatorri euskalduna aurkitzen diete irlandarrei. "Irlandarren ongietorria laburtzen duen esaera edo agur bat ere badago: 'Céad mile fáilte' edo 'ongi etorri ehun mila bider', eta horrek esanahi berezia du euskaldunetik". Irlandan, izan ere, badago ezezagunei harrera egiteko balio duen esaera bat: "ezezaguna, oraindik ezagutzen ez duzun lagun bat da".

• PROGRAMAZIOA •



- 13 Igandea**
20.00etan
Astebete (errep)
20.30etan
Mondragol
- 14 Astelehena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Astebete (errep)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia:
"Wanda izeneko arraina"
- 15 Asteartea**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep)
14.05etan
"Wanda izeneko arraina" (errep)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Play Back jaialdia"
- 16 Asteazkena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Play Back jaialdia" errep.
20.00, 20.30, 21.00tan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Gaueko filma: "Espioiak gu bezala"
- 17 Osteguna**
13.30etan
Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep)
14.05etan
"Espioiak gu bezala" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka.
Gonbidatua: Alberto Iñurrategi
22.00etan
"Play Back jaialdia"
- 18 Ostirala**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep)
14.05etan
"Quo Vadis" (errep)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren eguna: "Noeren untzia"

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •



VE ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

JEROGLIKOA
Elena.
Apo. 15. Or.
Izkribu. 7. Tortura. 9. Katil. 13.
3. KAS. 4. Epail. 5. Sen. 6.
Berrikal. 1. Euketa. 2. Urte.
Aro. 18. Buka.
Alaitu. 14. Tope. 16. Bar. 17.
pezio. 10. Itaskor. 12. Tir. 13.
Horizontalak 1. Eukeni. 8. Tra-
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olatre kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia., Tfnoa: 79 63 16. Gaez deitu. Luis.
- **Errioxako Calahorran**, 75m²ko atiko ederra salgai. Eguzki-begia, jantzita, goteleduna eta egoera ezinhobean. 15m²ko ganbara eta trastelekua ere baditu. Herriaren erdigunean dago. Prezioa: 4.500.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Torremolinosen** apartamentu-estudioa salgai. Haundia, herriaren erdialdean, jantzia, 2. pisua, igogailu, igerilekua, salariuma, atezaina...Prezioa: 3.250.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Uribe Auzoan.** 90 m². 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik betara.
- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Magdalena** kalean. 75 m²takoa. Sukaldea, bainua, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Hutsik duzun etxebizitza txiki hori** neuretzako modukoa da. Alokaturako didazu? Tfnoa: 79 01 66. Gaez.
- **Etxebizitzak salgai** Olatre kalean Bizkaia Etorbidean, 12 -4. Tfnoa: 79 87 47. (Eguerdiari).
- **Baseri bat hartuko genuke** ardiak zaintzeko. Tfnoa: 76 62 64. Imanol.

Lana

- **Neska bat asteburuetan** edozein lan egiteko prest. Arrasaten edo inguruan. Tfnoa: 77 06 82.
- **Frantsesezko klaseak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 29 80.
- **Pertsona bat behar dut** BTiko 1. mailako elektrizitate klase partikularrak emateko. Tfnoa: 71 50 72 (goizetik).
- **Espereziadun pertsonak orduka egingo luke** lan etxe edo atariak garbitzen Tfnoa: 79 99 17. Mari Carmen.
- **OHOko klaseak ematen dira**, euskaraz edo erderaz. Tfnoa: 79 42 91 (Itxaro).
- **OHOko klaseak ematen dira** taldeka nahiz banaka. Dei egin 2.30etatik aurrera. Tfnoa: 79 90 46. Rakel.
- **Etxe-garbitzak** egingo nituzke. Dei egin gabez 77 06 25 tfnora. Miren.
- **Pianoak afinatzen dira.** Tfnoa: 945-44 52 85. Aramaixo.

Salerosketak

- **100 litroko FAGOR termoa** salgai. Ia berria. Prezio ona. Tfnoa: 79 07 73.
- **Eski batzuk saldu nahi ditut.** Dynastar tablak. Look fijazioak eta bastoiak. Tfnoa: 79 17 96.
- **Volkswagen "escarabajoa"** salgai. Horia. SS-M. Tfnoa: 79 81 25.
- **Renault Twingo salgai;** berria da, lehiaketa batean irabazia. Tfnoa: 79 65 00. Marisol.

Denetarik

- **Betaurrekoak galdu zitzaizkidan** orain dela 2 aste, erdialdean. Tfnoa: 79 47 45.
- **Zilarrezko boligrafoa** galdu nuen urtarrilaren 8a aldera San Andresen. Boligrafoak VICENTE A. izena darama grabatua. Aurkitu ezker, 79 94 01 tfnora deitu. (Vicente Alonso).
- **Idazki honen bitartez**, guk Orkatz Eskaut Taldekoek, Alecoop Kooperatiba eskertu nahi dugu, joan den urtean eman zigun 45000 PTAko dirulaguntzagatik. Aurrerantzean, hauen adibidea jarraituz beste lantegi batzuk bultzakada ekonomiko bat ematera animatzea eskertuko genuke. Eskautar guztien partez, eskerrik asko, Alecoop.
- **Gabon zaharreen txamarra** bakeroa galdu nuen Lorategi tabernan. "On the road" markakoa. Tfnoa: 79 86 69.
- **Larruzko kartera galdu** zitzaidan asteazkenean edo. Tfnoa: 79 46 61.
- **Belarritakoa galdu zait.** Zigarrola eta Ertzaindegia artean. Luzea da eta perla bat du. Dei egin 79 32 90 tfnora.
- **Hiru giltza galdu ditugu** Altamira, Santa Ageda edo Erguin inguruan. Aurkitu badituzu dei egin 77 09 03. Igone.
- **Belarritakoa galdu zitzaidanotsailaren 3an.** Urrezkoa eta perladuna. Omega itxidura. La Merded elizan. Tfnoa: 79 07 48. Aurora Corcuera.
- **Otsailaren 23tik aurrera**, egunero Bilbotik Arrasatera etorri behar dut 8,30etan. Zuk ere bidaia hau egin beharra baduzu, deitu mesedez. Tfnoa: 79 06 45. Miren.

Aste Gazte

Bekak

- **Urretxu-Zumarragako Zintzo-Mintzo** euskaltzale elkarteak bi herri hauei buruzko ikerketa lan bat egiteko beka sortu du. Gai libre. Bekaren guztizko zenbatekoa 800.000 PTAkoa izango da. Epea: otsailak 28.
- **Alexander Von Humboldt** Fundazioak, musikologo eta maila altuko musikariei zuzendutako beka. Alemanian ikasteko. Dirulaguntza: 1.500-2.000 marko hiler, 12 hilabetez. Epea:

apirilak 30.

Ludoteka ibiltaria Musakolan

- **Larunbat honetan**, goizeko 10etatik ordu batetara Musakolako alkatzetzako lokaletan.
- **Ikastaroak**
 - "Ingurugiroarekiko eragintza ikasketak eta azalpen geografikoaren sistemak: metodologia eta praktika". Ikastaro orduak: 116. Martrikula epea: otsailak 25.
 - **Izotz eskalada** ikastaroak, Gavarnie-n. Otsailak

19-20, eta otsailak 26-27. Mailak: hastapena eta hobekuntza. Prezioa: 10.000 PTA ikastaro bakoitza. Aurtengo Mendi Federatu Txartela atzerriko suplementuarekin edukitzea ezinbestekoa da.

Lehiaketak

- **Argazki rallya.** Gaia: Arrasateko haratuzteak 1994. Sari ezberdinak. Parte hartzaileari ez dio kostu ekonomikorik ekarriko rallyan parte hartzeak, antolatzaileen esku baitago karrete-banaketa eta horiek errebelatzea.

"Hirurogeiko urteak iritsi arte gazteria ez zen ezer"

JOSE LUIS LOPEZ ARANGUREN, FILOSOFOA




Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

FOTO

imagen

ARGAZKI



Zerkaosteta, 5
ARRASATE
Tfnoa: 79 66 87

Argazkiak LIDER tamainuan (13x18)


Handiagoak
kalitate hobekoak

Argazki normalen PREZIOAN...


57 PTA



MUGARRA



Mondeo
"1994
urteko
kotxea"



**Escort
Cosworth**
"Montecarloko
Ralliko
txapelduna"



Fiesta
"Salmentetan
liderra"

